



ttipi-ttapa



DONEZTEBEKO FERIAK / 29



Genoveva eta Carmen ALDAZABAL GORRIA | Gerra Zibilean Beratik kanporatuak izan zirenak

«BERATIK ALDE EGIN BEHAR IZAN GENUEN EHUN FAMILIETATIK LAU BERTZERIK EZ GINEN BUELTATU»

Heldu den azaroaren 18an gerrako ahantziak omentzeko ekitaldia egingen dute Beran. Gerra Zibilean Beratik kanporatuak izan ziren familiak, fusilatuak eta desagertuak izanen dituzte gogoan. Errepresaliatu haien eta beraien senideen lekukotzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. / 8

TTIPI-TTAPA

Oroimen historikoa itzaletik argira

I. Mundu Gerlaren mendeurrenaren karietara, hazilaren 10ean 'Euskal Oroitzapena, itzaletik argira' estreinatuko dute Baionan / 12

SINADURAK

JOSEBA
URROTZ
TELLETXEA / 3

AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3

SAIOA
IRAOLA
URKIOLA / 4



ZOKKETA / 60

Aurtizko sanmartinak azaroaren 8tik 11ra ospatuko dituzte / 26

Iruritako Dorrea publikoari ireki nahi diote Udalak eta Gobernuak / 41



Leitza eta Aresoko produktuen azoka azaroaren 11n Leitzan / 38



Naroa Elizalde eta Iera Agirre Master Cup pilota txapelketan / 27/39



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



IZEN-EMATEA

www.euskaraldia.eus



NIRE TXANDA

JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Intsumisioa

Denbora zitzu bizian joan da eta badira 17 urte Espainiako Estatuak nahitaezko zerbitzu militarra kendu zuela. Orain dela aste batzuk Iruñeko Udalak militarismoaren kontrako mugimendu hura onetsi zuen eta kartzela zaharra zegoen lekuan harrizko eskulan bat ezarri du, garaipen hura oroitarazteko. Ez dakit beharrezko soldaduska kendu zuten bertze herrialdetan gurean bezalako iskanbilarik izan zuten, baina hemen gertatu zena oroitze modukoa da. Auintzentzat ejerzitao desegitea zen helburua, eta hori ez zen lortu, soldaduska kentzea bai ordea. Bertze auintzek horrekin nahikoa izanen zuten, urte bat alferrik ez galtzea, alegia. Hortan udalek ere lagundu zuten batzuetan informal samarra gertatu zen ordeko prestazioa bideratuz. Eta noski, gogoratu kartzela eta hainbat zailtasun jasan zituzten gazteak. Azken finean, sakonean dagoena zera da, autoritateari desobedientzia, eta hori gaur egun itzali samarra dago. Onerako edo txarrerako? Ez dakit.

«**AUTORITATEARI
DESOBEDIENTZIA
GAUR EGUN ITZALI
SAMARRA DAGO**»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBITZU

Martin Niemöller eguneratua

Lehenik komunisten bila joan ziren eta isilik gelditu nintzen, ni ez nintzelako komunista; ondotik, juduak eraman zituzten eta ez nuen ahorik ireki, ni ez baintzen hala; homeopatia erabiltzaileen kontra jo zuten gero eta ez nuen protestatu; diesel ibilgailuen jabeen kontra egin zuten, azkenean, eta ihes egiteko beranduegi zen (gasolina bukatua zegoelako).

NABARMENTZEKOAK



DANI
MARTIRENA
IDAZLEA



LAURENT
LASSAGA
SUHILTZAILEA

Dani Martirena legasarrak idatzitako eta Iruñeko Ana Ibañezek ilustratutako *Cosimoren katiuskak* lanak Etxepare Saria jaso zuen ekainean. Orain, berriz, Pamiela argitaletxeak argitaratu egin du.

43 urtez suhiltzaile nahianta izan den Laurent Lassaga senperrara omendu dute Senpereko Suhiltzaileen Batasunak eta Herriko Etxeak, Batasunaren 60. urteurreneko ospakizunen baitan.

ATZERA BEGIRA



2008-10-30 · TTPII-TTAPA · 481 zk.

Berako hegazkin azafatarekin

«Hegaldia eroso izatea eta segurtasuna bermatzea dira gure egitekoak». Halaxe adierazi zion duela hamar urte Estitxu Lopez Berako hegazkin azafatak TTPII-TTAPARI. Bortz urte zituela erran omen zuen lehenbiziko aldiz azafata izan nahi zuela. Ingelesa ikasten Irlandan eta Londresen ibili ondotik, azafata izateko ikastaroak egin eta gero, 20 urterekin hasi zen lan horretan. Azaldu zuenez, «hegaldia bukatzean hegazkina goitik beheiti begiratu behar dugu, gurea ez den deus ez dagoela eta zerbait falta ote den ikusteko. Bonba mehatxuak ia egunero izaten dira konpainia haundietan». Azafata izateko «baldintzez» ere aritu zen: «emakumeek guttienez 1.65 metroko altuera izan behar dute eta gizonek 1.80koa».



erran.
Mendialdeko Albiesteak



Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando
Etxeberria, Mattin Larralde, Juan
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso
Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarteak

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€





KOLABORAZIOAK

SAIOA IRAOLA URKIOLA

Gu gara memoria

Pasatu berri da urriaren 12a, batzuentzat «Hispanitate Eguna» da, «Colonek Amerika deskubritu zuen egun handia», eta, beraz, egutegi gregorianoaren arabera, Espainiar Estatuan jaieguna; beste batzuentzat, berriz, Abya Yalako (Latinoamerika kontzeptuaren jatorrizko izena) herrikideen eta lurraldearen ustiaketa, inbasioa eta sarraskia irudikatzen duen eguna da, «Erresistentzia Eguna» deiturikoa. Argi dago, batean zein bestean, desberdin ulertzen dira, nola historia, hala memoria. Hori ez da kontu berria, baina zein da gure historia?

Galdera potoloa da, baina iruditzen zait 1514. urteko gertaera haietaz mintzatzerakoan, aintzat hartu behar dugula, ordukoan gure herrian zer gertatu zen. Burura datozkit Zugarramurdin eta bailaran sorgintzat jo eta auzipetutako 300 herritarrak, baita Logroñoeko epaiketean (1610) erail zituzten 12 herritarrak (gehienak emakumeak, noski) ere. Baina, zein izan zen Europa osoan zabaldu zen sorgin-ehizaren helburua? Lancre inkisidorearen aginduz, Euskal Herrian, ehunka lagun prozesatu

eta exekutatu zituzten. Hona bere hitz batzuk: «euskal emakumeek sagarrak besterik ez dituzte jaten». Alegia, Evak bezala, debekatutako sagarrak jaten zituztela, eta, hortaz, bekataria zirela. Bestalde, XV. eta XVI. mendeetan, Espainiako Errege Katolikoan

«ETENIK IZAN EZ DUEN MEMORIA BAKARRA GARAILEENA DA»

(Castillako Isabel eta Aragoiko Fernando) aginduz, Abya Yalako lurretarako joan ziren Cristobal Colon eta, harekin batera, beste hainbat. Besteak beste, hango herritarrak «zibilizatzea» zuten helburu, eta horretarako inposaketa izan zuten oinarri, eta bi tresna nagusi: erlijio kristaua eta gaztelania.

Aipatutako kontakizunak garai bertsukoak diren arren, oso leku desberdinetan gertatu ziren, baina ba al dute antzekotasunik? Baietz esango nuke. Modernitatearen sustraiak daude bertan, hau da, arrazoiaren, eskubideen eta askatasunaren Europa definitzen hasten denekoak. Esaldi honek definitzen du zein zen sasoi hartako filosofia: «pentsatzen dut, beraz, banaiz». Baina Karina Ochoa Mexikoko soziologo eta ekintzaile feministak dioen moduan, «arrazionalitate modernoak behar du genozidioaren ekintza irrazionala, eta are gehiago, ez dago modernitateerik esklabutzarik gabe». Alde horretatik, nahiz eta garai hartako jazoerek Euskal Herrian edo Abya Yalan modu eta dimentsio diferenteak zituzten, bortxa tresnatzat hartuta, hitzarmen sozial berri bat inposatu zen, zeinetan arautu ziren izateko, egoteko, pentsatzeko eta ekiteko modu jakin batzuk.

Hortaz, historiak ari garela, eta, batez ere historia birdefinitzeaz, garrantzitsua deritzot memoriaz ere aritzea. Etenik izan ez duen memoria bakarra garaileena da, baina euskaldunona, emakumeona, indigenona... horrelakorik izan ez denez, horietan arakatzeko gonbitea egin nahiko nuke; ez hainbeste testu liburuetan begiratzekoa, baizik eta gure gorputzetan eta inguruan ditugunetan arreta jartzekoa. Eraiki ditzagun zubiak, piztu ditzagun suak, eta sortu ditzagun memoria dekolonialak.



ESTEBE APEZETXE MURUA

Sare (iraultzaile) sozialak

Gaur den egunean, ia denok erabiltzen ditugu sare sozialak gure egunerokoan. Telefono bidezko elkarrizketek Whats-Appari utzi diote lekua, egunkarietako berriak Twitter eta Facebook bidez elkarbanatzen ditugu eta gure opor liluragarrien argazkiak Instagramen erakusten dizkiogu munduari. Hauek gabeko gutako eguna imajinatze hutsa, amesgaizto bilaka daiteke gutako anitzendako. Ni, ordea, ez naiz haienganako dugun menpekotasunaz solastatuko ondoko lerroetan, horri buruz anitz mintzatzen garela uste baitut. Sare sozialek herri mugimenduetan duten eragina izanen dut hizpide.

Bertze gauza anitz bezala, sare sozialen bidez, ziztu bizian zabaltzen dira manifestaldi, mobilizazio eta ekimenen kartelak, telefono edo ordenagailuko tekla soil bati eragin bezain fite. Edozein komunikazio kanpainatan, leku garrantzitsua hartu dute eta anitzetan ohiko kartel, zelo eta kolaren lagun izateaz gain, hauek ordezkatzera ere ailegatu

dira. Inprobisatutako mobilizazioak hauspotzen ere laguntzen dute, bere garaian 15M mugimenduarekin eta bertze hainbatekin ikusi izan dugun bezala. Ezin atzendu bide «ofizialetik» ailegatzen ez zaizkigun albisteen zabalkunde

«SARE SOZIALAK BETETA ETA KARRIKAK GERO ETA HUTSAGO»

betetzen duten paperaz. Hamaika gauza on idazten ahal dira hauen inguruan... baina alderdi onak txarrak baino gehiago al dira?

Horretan zalantza handiak sortzen zaizkit. Zaila da erantzutea, baina gutxienez hausnarketa sakon bat egin behar dugula pentsatzen dut. Edozein ekintzaren hedapenerako eraginkorrak direla aipatu dut lehen, baina gero eta gauza gehiago ailegatzen zaizkigu eta horrek gudan nolabaiteko apatia eragiten duela iruditzen zait. Sorpresa eta jakin-min faktoreak aspaldi erre genituen eta nahiz eta aise jende gehiagoren begietara ailegatu, gehienak ez dira burmuin edo bihotzak kitzikatzeko gai. Gauza bera gertatzen da injustizia eta ustelkeriaren inguruko albisteekin ere. Konpartitu bai, konpartitzen ditugu eta sarean berri hauek sortarazten diguten haserre edo samina adierazten dugu. Baina hondartzako ume etorkinaren gorpua, diru-publikotik lapurtutako milioika euroak edo euskararen kontra zenbait politikaririk botatzen dituzten astakeriak asimilatzen irakatsi digute sare sozialek.

Milaka *Atsegin dut* eta partekatze zein iruzkinek sare sozialak betetzen dituzten bitartean, karrikak gero eta hutsago daude. Ezin dugu atzendu, historian zehar eskubide guziak karriketan borrokatu direla, internet existitu baino aise lehenago. Hortaz, helburuak lortzeko erreminta bezala ongi daude, baina ezin dira erreminta bakarra izan, ezta helburua bera ere.

11 GALDERA LABUR

IOSU ALTZURI MAKUSO AURTIZKO GAZTEA

«Herri ttikietako besta giroa berezia izaten da»

Nor da Iosu Altzuri?

Aurtizen bizi den mutil gazte alaia, jendearekin egotea gustatzen zaiona.

Zer zaletasun duzu?

Bertzeak bertze, bizikletan edo motoan ibiltzea gustatzen zait.

Txistua jotzen ikusi izan zaitugu...

Gustuko dut udan amarekin inguruko herrietako bestak txistu doinuz alaitzea. Familiatik datorkit lotura, atautxi eta ama elkarrekin ikusten nituen... Sei-zazpi urte nituela atautxirekin txistua jotzen aritzen nintzen, jostaketan. Hamaika urterekin, bera eta Fermin zubietarra lagun, jo nuen lehendabizikoz, herriko bestetan.

Zer da errazago txistua jotzea edo joareekin erritmoa segitzea?

Ez dute deus ikustekorik, bakoitzak bere zailtasuna du, baina biak ere gustora egiten ditut.

Bestetan badute tarterik?

Joareei atseden hartzen uzten diegu, inauterietan gogotsu egoteko. Txistua bai jotzen dut. Aunitzek goizetan etxe ondolik pasatzerakoan esnatu ditudala erraten didate! (irriz).

Zein da bestetako momentu politena?

Ortziralean egiten den herribazkaria, jendea gogotsu eta umoretsu egoten baita. Aurtengo bazkarian, gainera, bertsolari eta akodeoilariak gain, mexikar-kantak kantatzen dituen abeslari bat izanen dugu.



Zein da Aurtizko besten berezitasuna?

Azaroan izateak badu bere xarma, nahiz eta eguraldiak ez lagundu... Hala ere, nire ustez herri ttiki guztietako besta giroa berezia da, aunitz gustatzen zait. Etortzera animatuko nituzke.

Zer falta du Aurtizek?

Dagoen moduan utziko nuke, bertan gauden bezala kontent bizi gara.

Inguruko txokorik politena?

Bat aukeratzekotan, Mendaurko kaxkoa aukeratu nuke, goitik dauden bistak arront politikak baitira.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Gutti aski dut. Nire inguruan daudenak nire konpainiarekin gustura egoteak egiten nau zoriontsu.

Amets bat?

Amets aunitz ditut, bertzeak bertze, munduan dauden txoko bereziak ikustea gustatuko litzaidake.

1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



IRAKURLEAK MINTZO

Martxa batean

IZASKUN IGOA

Norberak sortu dugu sentitzeko leku gabeko mundu bat eta bertzeenak ikusteko gaitasun gutikoa. Hain sartu gara egunero egin behar ditugun zerrenda horietan, ordutegi antolatutako horietan, egin behar dudak hori inguruko gainera paratzeraino. Aunitzetan ez gara konturatzen ondo-ondoan duguna nola dagoen, gu nola gauden (horren arabera kanpoko nola ikusten dugun), ez dugulako astirik. Ez dago denborarik elkarrekin egoteko, elkar indartzeko, elkar sortzen laguntzeko. Elkarren asti faltan bizi gara.

Hartu minutu bat. Irakurtzen duzun bitartean begiratu zure ingurura eta egon isilik. Ikusi zer duzun zure inguruan, begiratu gauzei banaka, zer forma duten, zein kolore, zein usain. Edo konpainian bazaude, erreparatu, behatu zein begirada duen, nola mugitzen den, nola solasten duen edo nola egoten den isilik, zein kolore eta usain dituen. Ikusi. Imajinatu begiratzen duzun horren testurak zer sortuko lukeen zure ukimenean. Segi isilik. Sentitu.

Sentitu nola begiratzen duzun zuk, zure barrenak nola dauden, gustatzen zaizun edo ez.

Noiztik ez diozu zure inguruari horrela begiratu? Noiztik ez duzu zure ondokoa ikusi?

Noiztik ez ote zaituzte ikusi zu? Martxa bizi maiz, inguruan zer dugun eta guk zer sortu nahi dugun jakin gabe. Ondoa nor dugun jakin gabe. Jende inguraturiko borobiletan

bakarrik. Beti martxa berean, eta beti geldirik. Ikusi.

Oraindik ere ez: ETB3 Nafarroa osoan

AINHOA IRIGIBEL IROTZ

ETB3REN ALDEKO PLATAFORMAREN IZENEAN

Joan den irailtik hasita, ETB3, euskarazko marrazki bizidunen katea, Iruñerrian ere ikus daiteke, hots, Nafarroako haur gehienak bizi diren tokian. Sekulako aurrerapena izan da. Hala ere, salatu beharra dugu: Nafarroa guztirako lizentzia bat libre gelditu eta hori ETB2ren seinalea hedatzeko erabili da; hau da, erdarazko katea lehenetsi da beste behin ere. ETB3rentzat erabili behar zen lizentzia hori, eta, hala, orain Nafarroa osoan ikusiko zen. Oraindik ere Nafarroako zatirik handienean ez dago euskarazko marrazki bizidunak ikusterik. Esaterako, Sakanan. 2012an Lakuntzako Luis Fuentes ikastetxeko zuzendariak salatzen zuen haurrak euskarazko marrazki bizidunak gabe gelditu zirela, eta izugarrizko galera zela haurren euskararako. Bada, 2018an berdin segitzen dute Lakuntzan. Eta berriki Nafarroa Oinez ospatu duten Altsasuko ikastolako haurrek ere ezin dute ikusi. Jon Barberenak salatzen zuenez, Baztanen ere ez. Ezta Oibarren ere, ezta Garesen ere, etab.

Berriki oroitarazi digu Juan Luis Zabala idazleak (*Euskara batua plastikozkoa da* artikulua): Fikziozko ikus-entzunezkoak nahitaezkoak dira euskararentzat. Beraz, oraindik ere Nafarroako Gobernuari eta Pedro Sanchezen Gobernuari eskatzen diegu: ETB3 nahi dugu Nafarroa osoan.

BOTA BERTSOA



ALAZNE UNTXALO ERREGERENA
ITURENGO BERTSOLARIA

Sagardoa

Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke

*Hostoak hiltzen diren aroan
makurtutako adarra,
ustekabeen laxatuz doa
lotzen dituen zuztarra.
Gurdi gainera bildu ondoren
dolarearen beharra,
Kirikoketa erritmoetan
zapatutako sagarra...
barne pizgarri bihurtuko da
askatatuko aparra!*

*Edalontzian hautsi ondoren
askatatuko urrina,
dastatu eta aho sabaian
sortzen duen atsegina,
izan liteke gozoa edo
izan liteke samina.
Ez al da lagun arteko solas
ta kantuen erregina
kupel zaharreko zirrikitutik
irtendako zipriztina?*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58



AGURPLÁSTICOADIÓS

**Dagoeneko plastikozko poltsak ez dira doakoak
eta 2020an debekatuko dira**

Hondakinei buruzko Foru Legea

HONDAKINIK ONENA, SORTZEN EZ DENA

hondakinak.nafarroa.eus



Bideoa ikusi



Gerra hasi ondoko urtean, 1937ko abuztuaren 3an, hainbat beratar Donibane Lohizunen. Horien artean, Rufino Garcia-Larrache, Eleuterio Gainza, Isidoro Fagoaga, Roman Zabaleta Hacha, Etxarri, Eloy Aldazabal, Ezpona, Lucas Aristizabal eta Florentino Larraburu. JAVIER GARCIA-LARRACHEK UTZITAKOIA

Berako ahantzien oroimenez

Gerra Zibilaren ondorioz, kanporatuak izan ziren familiak, fusilatuak eta gerran desagertu ziren herritarrak omenduko dituzte azaroaren 18an Beran. 130 fusilatutik goiti izan ziren harrobian eta Herriko Etxeko Plazan eginen dute omenaldia

G. PIKABEA BERA

Egia, justizia eta erreparazioa. Hori da helburua eta horretan ari dira. Bera herriak ez du ahantzi Gerra Zibilean gertatu zena, sortu zuen mina eta eragin zuen kaltea eta horregatik isildutako ahotsak azaleratzen ari dira, 1936ko Gerra Zibilak

zapaldu zituenen memoria ageriko egiten. Berriz idatzi nahi dute 36ko historia, herritarren bizipenetatik abiatuta. Ez dira atzo hasiak memoria historikoaren bueltan lanean. Lantalde bat ere bada, eta horko kideak dira Aitor Elexpuru Egaña Berako Udaleko kultu-

ra zinegotzia eta Nahia Senper Mazizior historialaria.

Berako Udala aitzineko agintaldian hasi zen memoria historikoa lantzen eta agintaldi honetan ere horren aldeko apustu sendoa egina du. Aurrekontuetan partida bat onartu zuten. Bera herriak memo-

ria historikoarekin hartu duen konpromisoaren seinale, denetarik ekintzak egiten ari dira: *Harritik hazia* antzezlan, Oroimena izeneko atala *bera.eus* Udalaren webgunean, Frankismo garaiko langile batailoien eta bortxazko lanen inguruko ekitaldiak, Enderlatsako fusilamenduei buruzko solasaldia, Gernikako bonbek isilarazi zuten Isidoro Fagoaga tenore beratarren inguruko ekitaldiak...

Senperrek eta Elexpuruk azaldu digutenez, «solasaldi horietako batean atera zen Gerra Zibileko errepresaliatuei omenaldia egiteko ideia». Hala ere, gaineratu dutenez, «lehendik ere ahantziak izan zirenei aitortza egiteko eskaerak baziren». Berako bestetan egin zieten errepresaliatuei lehenbiziko keinua; kanporatutako familiak, fusilatuak eta gerran askatasunaren aldeko borrokan bizitza galdu zuten herritarrak gogoan, haien senide eta ondorengoek bota zuten beste hasiera eman zien altxaferoa.

Frantziara, Gipuzkoara edo fusilatzer

Iruñetik etorritako matxinoek eta erreketeeek 1936ko uztailaren 21ean hartu zuten Bera. Ordurako altxamendu frankistarekin bat egin ez zuten hainbat herritarrek eta karabinerok herritik alde egin zuten, baina euren familiek gogor ordaindu zuten. 1936ko abuztuaren 3an, ihes egindakoan emazte, haur eta senideak

Fusilatuak, desagertuak eta kanporatuak

Gerra Zibilak gogor kolpatu zuen Bera. 130 lagunetik goiti fusilatu zituzten harrobian, batez ere Gipuzkoatik eta Nafarroa hegoaldeko ekarritakoak, tartean, Villabonan bizi zen Juan Etxenike beratarra ere bai. Ehun familia baino gehiago kanporatu zituzten, gehienak karabineroen senideak, baina herriko familiak ere baziren: Aldazabal-Gorria, Mehax, Prieto, Txueka, Apat, Azkona, Gainza-Aldazabal, Paradanak, Anadonenak... Batzuk 30eko hamarkadan Fundiciones lantegian UGT sindikatuaren bultzatzaile nagusiak izan ziren Eloy Aldazabal, Faustino Martinez, Juan Usandizaga, Anadon anaiak, Eleuterio Gainza eta Jose M^a Iriarteren senitartekoak

ziren. Matxinoak Beran sartu zirenean, hainbat herritar atxilotu zituzten. Ez hori bakarrik. Luciano Aldai *Pistolo*, Ezequiel Garcia karabinero baten aita, Francisco Arozamena eta Dolores Elorriaga fusilatu egin zituzten, baita Errepublikaren alde aritu ziren hainbat karabinero ere, Gipuzkoan preso hartutakoan. Abenduaren 10ean bertze hiru beratar erail zituzten Iruñean. Biren izenak egin dira ezagun: Cesareo Seminario eta Faustino Martinez. Errepublikarren aldean hainbat beratar aritu ziren borrokan, baina batzuen berririk ez da izan geroztik. Horixe da Enrique Berasain, Santiago Anadon, Luis Aranburu, Ramon Balza eta Jose Larruburen kasua.

Herriko Etxeko plazan bildu eta mezu argia luzatu zieten: «Gipuzkoara, Frantziara edo fusilatzer». Ehun familia inguru bidali zituzten Beratik eta horietatik hiruzpalau itzuli ziren, tartean, Aldazabal-Gorria, Gainza eta Mehax familiak. Gainerakoek bertzelako bidea hartu zuten: Ameriketara, Frantziara, Euskal Herriko bertze tokietara...

Azaroaren 18ra begira

Bestetako omenaldiaren segida azaroaren 18an egingen dute harrobian eta Herriko Etxeko Plazan. Elexpuruk eta Senperrek aitzineratu dutenez, egun horretan 11:00etan harrobian egingen dute hitzordua. «36ko irailetik 37ko urtarrilera bitarte, 130 lagunetik goiti fusilatu zituzten harrobian. Nafarroan fusilatu gehien izan ziren tokia izan zen». Beraien irudiko, «ahantzitako tokia izan da eta duen balioa eman nahi diogu. Jendeak zer gertatu zen jakitea nahi dugu eta toki memorialistiko izendatzea espero dugu». Harrobian informazio-taula paratu eta mural bat egingen dute. «Horrez gain, Pettik abestuko du, lore eskaintza egingen dugu eta testigantza bat iraruriko dugu». Harrobitik Herriko Etxera abiatuko dira. «Bidean dauden ikur frankistak kenduko ditugu eta Herriko Etxeko Plazan Mikel Iriarte donamariarrak egindako oroitarria inauguratuko dugu».

Plazaren erdian hilobi bat irudikatu nahi dute eta pauso batzuk Ibardin aldera «famiak handik joan zirelako». Plazako ekitaldian Nafarroako Gobernu eta Udaleko ordezkariak hartuko dute hitza, baita errepresaliatuen senideek ere. Dantzariak Aureskua dantzatuko dute eta Berako abesbatzak kantatu. Ekitaldia boro-biltzeko luntxa izanen da.

Egiari egia zor, urteetan isilarazitako oinazea sendatzea nahi dutelako ari dira lanean, berriz halakorik gerta ez dadin. Azaroaren 18aren ondotik ere horretan segituko dute.



UTZITAKOA

«Herriarrek salatu zutelako fusilatu zuten aittitta»

ANE MIREN SEMINARIO ARANGUREN FUSILATU BATEN BILOBA

«Nire aittitta, Cesareo Seminario, taxi-gidaria zen Beran eta 1936ko gerra hasi zenean, militar frankistak Berara ailegatu aurretik, karabineroak Gipuzkoa aldera pasatzen ibili zen. Herriarrek salatu eta guardia zibilek atxilotu zuten. 1936ko abenduaren 10ean fusilatu zuten». Historia gordin bezain tristea, baina horixe da Ane Miren Seminarioen aittittari gertatu zitzaiona. Gaur egun, Bergaran bizi da, aittitta fusilatu zutenean, han zuen ahizparengana joan zelako bere amama bortz seme-alabekin, tartean Ane Mirenen aitarekin.

Izebaren idatzia

Gerrak Donostian ikasten topatu zuen Ane Mirenen aita. «hortaz, ez zen gehiegi jabetu Beran gertatzen ari zenaz». Baina Ane Mirenek badaki aski ongi aittittari zer gertatu zitzaion, izeba Martinak kontatuta. Izebak gertatutakoa idatzi zuen eta hori ongi gordea du ilobak. Honela dio idatziak: «1936ko uztailearen 18an, eskolatik atera eta karabinero eta jende andana ikusi genuen akademia aitzinean. Irakasleak errepidetik ez joateko aholkatu

zigun, gibekeko aldetik joateko. Zeinek erranen zigun kuadrilla guztia klasean elkartuko ginen azken eguna izanen zela! Gauean, aita etxetik ateratzen eta sartzen sentitu nuen. Biharamun goizean, karrika nagusia Iruñetik etorritako militarrez eta txapel gorridun zibilez bete zen, eta sekula entzun gabeko kontuak aditu nituen. Goizeko hamarrak aldera, aita oraindik lo zegoeanean, bi guardia zibil gure etxera etorri ziren aitaz galdezka. Orduan jakin nuen arrats hartan, herrian ezagunak ziren karabinero batzuk etorri zitzaizkiola Endarlatsara eramateko erregutuz, Bidasoaren bertze aldera, Irun aldera».

Izeba Martinaren arabera, «guardia zibilek armairu guztiak erregistratu zituzten eta horietako batetik Jesus haurtxoa atera zuten, eskolan Eguberrietarako egiten genituen errifen zozketan tokatu zitzaidana. Hori ikusitakoan herrian bertze Seminariorik

«AMAMAK EZ ZIGUN EZER KONTATZEN, BELDURRA BARRURAINO SARTUA ZUEN»

ba ote zegoen galdetu zioten amari». Herrian guardia zibilen kuartelaren kontrako erasoan parte hartzea, kontrabandoa eta bere ibilgailuan jendea mugaz bertze aldera garraiatzen ibiltzea leporatuta atxilotu zuten Cesareo. «Zerbait leporatu behar zioten eta hori egin zioten», dio bilobak. Hasieran, Herriko Etxeko kartzelara eraman zuten eta handik bi egunetara, Iruñera.

36ko abenduan epaitu eta fusilatu zuten taxista-gidaria, baina ez zuen halakorik espero, hil aitzineko egunean eskutitza igorri baitzion emazteari, bertzeak bertze, «gure errugabetasuna argituko dela pentsatzen dugu» erranez. Ez zen halakorik gertatu. Euskaldun marxista arriskutsua zela egotzita, heriotza-zigorra kondenatu zuten. Hil aitzinetik hiru eskubide aitortu zizkieten: salatzaileak zein ziren jakitea, bere anaiaren ondoan lurperatzea eta familiari agur erratea. Hala jakin zuen familiak herriarrek salatu zutela Cesareo.

Aitaren galerarekin «min eta sufrimendu handia» pasatu zutela dio izebak idatzian, baita «diru eskasia» ere, «ondasunak konfiskatu» zizkietelako. Taxi-gidariaren autoa, erraterako, gerora Hondarribiko kapilau baten eskuetara pasatu zen. Halere, Martinaren hitzetan, laguntza ere izan omen zuten, «balioko gauza batzuk familiako lagun batek gorde zizkigun. Etxea azkar saltzea lortu genuen eta horri esker jatekoa izan genuen».

Sorterriarekin lotura

Familiak Bera halabeharrez utzi behar izan bazuen ere, bergararrak dioenez, ez zuten lotura hautsi: «aitak askotan eramaten gintuen Berara eta hango gauzak kontatzen zizkigun». Amamak, berriz, «behin ere ez zigun ezer kontatzen, beldurra ez dakit noraino sartua zuelako».

«Bizitza izorratu ziguten baina ez dugu euren barkamen eskaerarik nahi»

GENOVEVA ETA CARMEN ALDAZABAL GORRIA ERREPRESALIAUAK

A. AROTZENA

Carmen eta Genoveva Aldazabal Gorria beratar ahizpek ez dute erraz ahantziko 1936ko San Esteban eguna. Gaur egun 91 eta 90 urte dituzte; orduan zortzi eta bederatzita urteko neskatoak ziren. «Amak igandeko arropa jarri eta Berako plazara abiatu ginen. Ni hagitz kontent nengoen, igandeko arroparekin ikaragarri dotore nengoen», dio Genovevak. Baina agudo aldendu zitzaizkion kontent egoteko arazoak: «plazara ailegatu ginenean, bestarik ez zegoela konturatu nintzen; Berako ehun familia eta soldaduak zeuden han eta beldurra sentitu nuen». Orduantxe aditu zuena ere ongi hiltzatua du memorian: «guardia zibil bat mahai baten gainean jarri eta 'A Francia, a Gipuzkoa o a fusilar!' erran zuen».

Denek Iparraldera joan nahi zutela dio Genovevak, baina ez omen zen hala izan. «Gure familiak zortea izan zuen. Nire izebak hango soldadu bat ezagutzen zuenez, honek etxeko kotxean goitzeko baimena eman zigun eta Ibardinera abiatu ginen. Bertze familiak kamioietan goitu eta engainatuta Irun aldera bidali zituzten. Animaliak edo zaku patatak bailliran tratatu zituzten».

Familia errepublikarra

Carmen eta Genovevaren aita, Eloy Aldazabal, Errepublikara garaiaren kultura zinegotzia izana zen eta fundizioen fabrika UGT sindikatuko ordezkaria. Sebastiana Gorriarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten: Maria Luisa zaharrena 12 urte zituen orduan eta Pepito gazteenak hiru. Bi horiek hilik daude gaur egun. Carmenek gogoan duenez,



TTIPI-TTAPA

«orduro aitaren bila etxera etortzen ziren, kotxe bati lotu eta arrastaka eraman nahi zuten, baina ez zuten topatu».

36ko besta egun hartan, aita non zuten jakin gabe joan behar izan zuten Ibardinera. Genovevaren hitzetan, «amonak atta Irunen zegoela jakin zuen, eta Ibardinera joan zen berria ematera. Dena pasako zelakoan, ni amonarekin gelditu eta ama eta anai-arrebak Irunera attarengana joan ziren, gero nire bila etortzeko asmoz». Baina biharamunean, Iparraldera pasatzea debekatu zuten eta «denbora luzez, ez nuen nire anai-arrebez eta gurasoez deus ere jakin. Gure bizitza erabat aldatu zen».

Batzuk Frantzian

Bertze hiru senideak eta ama, aitarekin elkartu ziren Irunen. Carmenek kontatu duenez, «attaren lehengusu batek etxea utzi zigun Irunen, baina segidan hasi ziren Erlaitzeko kanoiak etxe hura jotzen, eta nazioarteko zubiaren ondoan zegoen izeba baten etxera joan ginen». Harat ere kanoi-kadak hasi ziren, eta zubi azpian egotera ailegatu ziren, «manta azpian». Handik Iparralde-

ra pasatu eta trenean Frantziara alde egin zuten. Batetik bertzera ibili ondotik, «azkenean Britainiara ailegatu ginen, Pariseko haurrak koloniak egiten zituzten eremu batera». Hiru urte eman zituzten han, 1936tik 1939ra: «eskolan hasi eta frantsesez ikasi nuen».

Eta bat Beran

Bitartean, Genovevak Beran segitu zuen, «beldurrak airean». Ez du ahantzia «osabaren etxean hiru egun logela batean gorderik» pasatu zituela. Erailak izanaren zirenaren beldurrez, «izebaren baserrira eraman eta han gorde ninduten». Zortzi urterekin, ez zuela gehiegi ulertzen dio, «baina ikaragarriko beldurra nuen, argi nuen ezin ninduela inork ikusi. Arratsero bi soldadu baserrira lotara etortzen ziren eta isililik egoten nintzen sukaldean egokitutako logela batean gorderik. Noizbehinka arratsetan zakurrarekin buelta bat ematen nuen, haize pixka bat

«HAURRAK GINEN BAINA ARGI GENUEN GURE FAMILIAK EZ ZUELA DEUS ERE EGIN»

hartzeko». Aitortu digunez, «egun batean serorak ikusi ninduen, baina ez zituen izeba-osabak salatu». Urtebetez baserrian gorderik egon ondotik, «ezagun baten bitartez, osabak Frantziatik nentorrela zioten paperak egin zituen». Paperak lortuta, amonaren etxera joan zen. «Hasieran, ez nintzen jendeari begiratzera ausartzen, ikaragarriko beldurra nuen. Eskolan hasi nintzen eta andereñoa, *señorita* Gloria, ezkertiarra zenez, hagitz ongi tratatu ninduen».

Begiz joak

80 urte baino gehiago pasatu badira ere, Genovevak ez ditu ahantziak orduko kontuak: «Berako toki batzuetara joateko *salvoconducto*» eraman behar izaten zela, «Bera soldaduz beterik» zegoela, «arratsetan argi guztiak itzaliak» egon behar izaten zutela, «harrobian jendea hiltzen» zutela eta «amonaren etxea harrobitik hurbil zegoenez, gauero tiroak» aditzen zituela... Beran «beldurra nagusitu» zen. Gerra ondotik ere, monjek «gaizki» tratatu zituztela dio. «Doktrina ikastera mojegana joan behar izaten genuen eta batean, mauka motza nuela eta, gela batean sartu eta irainka hasi zitzaizkidan gorrien alaba nintzelako. Haurra nintzen, baina argi nuen nire familiak ez zuela deus ere egin».

1940. urtean, alemaniarrek Frantzian sartuak zirenean itzuli zen familia, lehenik Urruñara. Hegoaldera pasatu zirenean, ordea, aita urte eta erdiz Donostian kartzelan sartu zuten eta amak astero Berako Guardia Zibilaren kuartelean sinatu behar izaten omen zuen, senarra libre utzi arte.

Beratik bota zituzten ehun familietatik lau itzuli ziren. «Gure bizitza erabat izorratu zuten eta oraindik inork ez digu barkamenik eskatu». Baina garbi dute: «ez dugu euren barkamen eskaerarik nahi».



Fernando Berasain bere amaren eta izeba-osaben argazkiarekin.

«Urte aunitzez markatua egon den jende horrek aitortpena merezi du»

FERNANDO BERASAIN GAINZA ERREPRESALIATUEN SENIDEA

Bizitu zutena isilean gordez joan dira Gerra Zibileko biktima aunitz. Fernando Berasainek ere badaki zer den hori: «ama zenak ez zuen deus ere kontatzen gaiaz». 80 urte beranduago Maria Josefa amaren minak hor segitzen zuen seinale. Berasainen amaren eta aitaren aldeko familietan sufritu zituzten altxamendu frankistaren ondorioak. Aitaren aldetik, Fernandoren ataxi atxilotua egon zen; haren anaia bat, Enrique, errepublikanoen bandoan aritu eta ez dute bere berririk izan. Bertze anaia bat, ordea, nazionalisten aldean hil zen gerran eta baldintza duinetan lurperatua izan zen.

Amaren aldeko familia kanporatu egin zuten. «Nire attonak, Eleuterio Gainzak, Eloy Aldazabalekin ihes egin zuen» eta «nire ama, bere anai-arrebak eta amoña kamioi batzuetan sartu eta Saint Gilles Croix de Vieko (Frantzia) errefuxiatuen kanpalekura eraman zituzten». Han attonarekin egoteko aukera izan zuten. «Ama zena eta anai-arrebak kanpalekuan urte batez» egon ondotik, sorterrirako bidea hartu zuten: «lehenbizi ama eta anai-arrebak etorri ziren, eta izeba batzuekin bizitu ziren. Amoña denbora gehiagoz egon zen kanpoan». Attona ere Frantziatik Iparraldera hurbiltzen hasi zen: «lehenbizi Oletan eta gero Ainhoan aritu zen lanean».

Itzulera ez zen samurra izan: «etorri zirenean, gorriak eta komunistak ziren, eta bertze hurrek eta mojek seinalatu egiten zieten». Attona gerora itzuli zen Berara. «Hegoaldera pasatu zenean preso hartu zuten eta amoñak kuartelera sinatzera joan behar izaten zuten». Libre utzita ere, ez zen erraza izan bidea: «attonak ez zuen lanik. Fundicionesen ez zioten lanik eman gorria izateagatik. Nahiko trebea zenez, Bortzirietan kazuelak konpontzen hasi zen». Fernando Berasainek kontatu digunez, «goserik ez, baina behar haundia izan omen zuten, ordaintzeko ez baitzuten dirurik». Haurra zela, «diru pizar bat ateratzeko» lanean ere aritu omen zen bere ama: «soldaduei arropa garbitzen aritu zen».

Azaroaren 18ko omenaldia «beharrezkoa» dela uste du Berasainek. «Ez dugu salatariak nor izan ziren adierazi nahi, bakoitzak jakin behar du bere aitzinekoek zer egin zuten, baina deus ere egin gabe, jende aunitzek sufritu izan du eta urte aunitzez herrian markatuak egon dira. Jende horrek aitortpena merezi du».



Patxi Mehax bere amaren familiaren argazkia eskuetan duela.

«Soinean zutenarekin kamioietan sartuta herritik bota zituzten»

PATXI MEHAX MARTINEZ ERREPRESALIATUEN SENIDEA

«Bizi guzia beldurrez pasatu zuten». Aita eta ama gogoan, halaxe aitortu digu Patxi Mehaxek. Gerra hasi zenean, ama eta haren familia herritik kanporatu zituzten eta aita, berriz, lehenbizi ihesi eta gero errepublikarrekin borrokan ibili zen.

«Nire hiru osabek Frantziara ihes egin zuten eta ama, ataxi eta amatxi Beratik bota zituzten. Osabek Fundicionesen lan egiten zuten, eta nonbait, urte batzuk lehenago greba bat izan zenean, fitxatuak gelditu ziren». Erreketek Berara ailegatu zirenean, «Berako jendearen laguntzarekin, ihes egindakoak zein ziren jakiteko etxez etxe» ibili omen ziren: «bi egunez itzultzen ez baziren, ihes egindakoen familiak Beratik botako zituztela adierazi zuten». Erran eta egin. 1936ko abuztuaren 3an, «soinean zutenarekin bakarrik kamioietan sartuta herritik bota zituzten». Ordurako Endarlatsako zubia botata zegoenez, txalupan pasatu zituzten Gipuzkoara: «amak kontatzen zuen, bi aldeetatik tiroka ari ziren bitartean, gonazpikoekin bandera zuria eginez pasatu zirela txalupan». Baionara joan ziren, eta handik Kataluniara, Arenys de Marrera. «Amatxi han hil zen. Ataxi eta ama gerra bukatutakoan itzuli ziren Berara, «etxea eurena baitzuten. Bertzela, han geldituko omen ziren».

Mehaxen aita ere errepublikarra zen: «beti Altzaten izaten zen Errepublikarren Etxean egoten zen. Bere bila heldu zirela jakin zuenean, ihes egin zuen, baina gero, errepublikarren bandoan borrokatu zuen. Kartzelan ere egon zen, Madrilan».

Beran pasatu zena «hiruzpalau beratarrek» salatu zutelako gertatu zela dio: «aunitzetan bertako jendea dugu etsairik haundiena». Baditu anekdotak: «gerora, atta Alkaiagako meatzean aritu zen lanean. Egun batean, nagusiak bere aurka salaketa paratu zutela erran zion, lanetik botatzeko eskatuz. Nagusiak ez zion salaketari kasurik egin, baina jendea nola zebilen jakiteko gertatu zena kontatu nahi izan zion aitari». Bertze anekdota amaren aldekoa du: «ama eta familia kanporatu zituztenean, frankistek biltegi bezala erabili zuten familiaren etxea». Ez hori bakarrik, «balioko gauza aunitz ebatsi zituzten». Tartean, amatxik Donibane Lohizuneko merkatutik ekarritako koadroa, «gerora, amak Berako bertze etxe batean ikusi zuen koadroa. 'Gure koadroa eta isildu behar', erraten zuen amak».



Ibai Telletxea senperrak I. Mundu Gerla ikertu du, garaiko dokumentuak aztertuz eta testigantzak bilduz. UTZITAKOA

«Lehen Mundu Gerlaz dauden hutsuneek bultzatu naute ikertzera»

IBAI TELLETXEA MORRAS LAPURDI 1609 ELKARTEKO KIDEA

I. Mundu Gerlaren mendeurrenaren kariatara, hazilaren 10erako 'Euskal Oroitzapena, itzaletik argira' ikusgarria antolatu du Lapurdi 1609 elkarteak, bertze talde batzuekin elkarlanean.

N. BAZTERRIKA SENPERE

«Historikoki dauden hutsuneak betetzeko» helburuz, «informazioa harrien azpitik ateratzen» ibili da Ibai Telletxea, Lapurdi 1609 elkarteak kidea. Orain, hazilaren 10ean, oroi-men historikoa «itzaletik argira» aterako dute, Baionako antzokian.

Lapurdi 1609 elkarteak kidea zara...

Bortz bat urte daramatzat. Elkartea 2009an sortu zen. Sorrera hartan, 1609an izan ziren sorgin auziak zirela eta, Lapurdin eta Nafarroan egon ziren sarraskiak ikertzea zuen helburu. Horren kariatara, liburuak eta antzezlan bat argitaratu zen eta oroitarri bat

jarri zen Senperen. Geroztik, hainbat liburu argitaratu ditugu, beti historiari lotuak. Aurten Saran oroitarri bat altxatuko dugu, onartua izan da baina inaugurazioaren zain gaude. Oroitarri hori Napoleondar Gerletan (1813-1814) inperioetako milaka soldaduak eta abereak Baztandik, Bidasotik, Lapurditik... pasa zirenean eta egonaldiak egin zituztenean hil zirenen eta euskal gizarteak sufritu zutenaren omenez altxatuko dugu. **I. Mundu Gerlaren mendeurrena dela eta, lanean ibili zarete...**

Historikoki hutsune handiak ikusi ditugu eta horrek bultzatu gaitu barne ikerketa egitera. Artxibategietara joan,

dokumentuak atzeman, elkarriketakin... ditugu. Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Beherean armistizioa izenpetu zen eguna, hazilaren 11, oroitzen dute. Oroitarriak daude herrietan eta horiek Frantziaren alde odola isuri zuten euskal soldaduak oroitarazten dituzte. Alde batetik oroitarrietan jartzen duen 'Gure heroien omenez' hori alimaleko gezurra da, beraiei zer nahi luketen erraten utziz gero, segur aski gerlara boluntarioki joan zirenen kopurua %5era edo iritsiko zen. Bertzela erranda, gehiengo behartuta joan zen. Oroitarazi behar da Frantziako estatu mailan Euskal Herria izan zela intsu-

miso gehien izan zituen herria. Frantziako estatuaren batz bertzekoa %1,52ra iristen dela intsumiso kopuruetan eta Euskal Herrian %25etik goiti izan ziren. Ttikitatik erran digute euskaldunak boluntario joan zirela...

'Sekula kontatu ez diguten egia' azaleratzea duzue helburu...

Eginahalak egin ditugu bertze bertsio bat emateko, urtez urte kontatu digutena ez da egia. Horregatik abiatu genuen ikerketa hori. Armistizioaren mendeurrena izanen dela baliatuz eta eginen dituzten gertakariak aurreikusiz, bezperan, hazilaren 10ean *Euskal oroitzapena, Itzaletik argira* ekitaldi ikusgarria antolatu dugu, euskal herritar guztiei zuzendua da, denoi eragiten digu eta... Intsumiso eta desertoreez mintzatzen garenean, andana izan ziren Baztanera edo Bidasoa aldera jo zutenak. **Guztira zenbat intsumiso izan ziren?**

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beheretik 12.000 intsumitu inguru izan ziren. Ainitz Ameriketara ziren, gerlak eztanda egin baino lehen. Historialari ainitzek errealitatea desitxuratzeko erabiltzen dute informazio hori. Intsumitu denak Ameriketara zirela eta ez zutela gerrara joateko papera hartu eta ez zirela enteratu erraten dute. Egia da gehienak han zeudela, baina irakurketa hori ez da errealia. Gainerako euskal probintzietan ere intsumitu kopurua izugarria zen. Ameriketara joan zirenen gehiengo soldaduska ez egiteagatik joan ziren. Are gehiago, gerlakeztanda egin zuten Ameriketara ziren kontsulatuak Ameriketara zirenen herritar guztiei beraien betebeharrak helarazteko agindua zuten. Agiriak andana batek jasoko zituzten eta jaso ez zutenek ere lortuko zuten informazioa. Honen harira, Sarako gizonetzko batekin izandako elkarriketa aipatu nahi nuke. Pentsamenduz frantsesa da, baina argi erraten zuten. Haren

osabak Lehen Mundu Gerlan parte hartua zuen. Osaba hori Kanadako lurgalduetan zegoen lanean, animalien larrua saltzen egiten zuen lan, eta barkadadean bizi zen. Horrek, erraterako, ez zuen sekula agiririk jaso. Berak ederki azaldu zidan. Isolatuta egonagatik, harremanak bazituen bezeroekin eta hor izan zuen gerraren berri. Paperak egin zituen boluntarioki parte hartzeko. Euskaldunen artean baziren borondatez parte hartu zutenak, bai; baina baziren parte hartu nahi ez zutenak ere. Hori ez da kontatzen. **Batzuek Baztan-Bidasoa aldera jo zuten gerlatik ihesi...**

Bai. Dongaitz izeneko lapurtar pilotari batek gerlan parte hartu zuen, baina momentu batez alde egitea erabaki zuen. Pilotari ezaguna zen, bai herrian, bai eta Bortzirietan ere. Duela ehun urteko Lesakako bestetan pilota partida jokatzeakoa zuen Dongaitzek. Frantses poliziak, horren jabe izaki, barne-ikerketara bat abiatu zuen eta komisario bat Lesakara bidali zuen, bazekielako Dongaitzez gain bazirela intsumiso eta desertore andana Lesakan bilduak eta pilota partida ikusiko zutela. Komisarioak aukera ona izanen zuela ikusi zuten, hangoekin solastatzeko. Haiekin hitz egin eta informazioa ateratzera joan zela dio dokumentuak, ez noski polizia zela erranez, haien artean sartuz eta infiltratuz baizik.

**«URTEZ URTE
KONTATU DIGUTENA
ERREALTATE
DESITXURATUA DA»**

**«GERLAK
FRANTZIARI
ATXIKITZEKO
BALIATU DITUZTE»**

Eragina ez zen Iparraldera mugatu, beraz.

Gerlak Euskal Herri osoan eragin zuen. Ibardinen, adibidez, Berako herritar batek dantzaleku bat ireki zuen, igandetan hor biltzen ziren Bortzirietako desertore eta intsumisoak. Urruñako brigada batek dantzaleku bat bazela ikusi eta gogor salatu zuen, hori onartezina zela, batzuk gerlan zeuden bitartean bertzeak hor zebiltzala... erranez. Gerla garaian horrenbertze intsumiso eta desertore izaki, eta autoritateek denak Nafarroa iparraldera etortzen zirela jakiki, soldaduak muga zaintzen jartzen zituzten. Hasieran soldadu horiek euskaldunak ziren. Nahiz eta Frantziaren ordezkari izan, intsumisoei pasatzen uzten zieten. Autoritatea horrez guztiaz konturatu zen eta euskaldunak ez ziren soldadu edo militarrik izan behar zirela erabaki zuten. Bertze agiri batean Erratzun 30 desertore inguru bilduak zirela aipatzen da, Ameriketara joateko prest zeudenak. Elizondon ere Leandro Goienetxe delako baten berri ere badugu, hau desertoreei paper faltsuak egiteaz arduratzen zen... eta beraz, hor negoziotxo bat ere bazegoen. Ez zuen dohainik eginen. Baztango Balleko Etxetik lortzen zituen paperak, bertako herritarren izen-abizenak baliatuz eta argazkiak aldatuz... Paper horiek baliatzen zituzten Ameriketara joateko. Baztandik Bartzelonara joaten ziren eta han itsasoratu eta Ameriketara.

Inguruko testigantzak bildu dituzu?

Erratzuko batekin ere egon nintzen, bere aitaren historia ezagutzeko. Aita Irisarrikoa zuen, desertatu eta Baztanera joan zena. Ameriketara joan zen eta hamalau urte pasa zituen han, eta hamalau urteren ondok Baztanera itzuli eta hor egin zuen bere bizitza. Bertze bat Mixel Dargaitz bertsolari saratarraren biloba



Irailaren 21ean aurkeztu zuten Baionan. IURRE BIDE GAIN

'Euskal Oroitzapena, Itzaletik argira'

Lapurdi 1609 elkarteak, Zizpa Gaztetxea, Epaiska Elkarteak, Bertsolarien Lagunak eta Bernat Etxepare Lizeoarekin elkarlanean, antolatu duten ekitaldi ikusgarria hazilaren 10ean izanen da Baionako antzokian. 18:00etan dute «herri omenaldi» gisa antolatutako ekitaldirako hitzordua.

Antzerkia, bertsoak eta bertzelako ekitaldiak

«Dakigunetik at, historia ezagutzeko» dokumentuak eta testigantzak bildu dituzte. Horiek ardatz, garaiko bizipen errealek oinarri dituen antzerkia aurkeztuko dute hazilaren 10ean: «Gaizka Sarasolak lan ederra egin du gidoia sortzen». Ondotik, Artzallus eta Colinak, ikusitakoa aztertuta, bertsoak botako dituzte. Bien bitartean, dantzak, omenaldia, kantak, musika, margolanak... denetarik izanen da. Sartzea 10 euro ordaindu beharko da (16 urtetik behetikoei urririk), 06 84 51 88 09 telefonora deituz edo euskaloroitzapena@gmail.com helbidera idatziz atxiki daiteke lekua.

izan da. Gerlan ibili zen, bi urtez, behartuta. Gerlan zela, bortz eguneko atsedena izaten zuten eta horietako batean ihes egin zuen. Amaiurrera jo zuen eta bertan ezkondu zen eta Otsondoko bidean, Pulpulusta baserrian egon ziren. Ezaguna da, bertsolari ezaguna izan zen. Euskal Herriko Bigarren Txapelketa Nagusian, 1936an, laugarren izan zen. Bertso batean ongi islatzen du gerrarekiko izan zuen esperientzia. Abertzaletasuna XX. mendeko kontua dela eta aranatarrek ekarri zutela erraten da, baina hor ikusten da berak zer ikusten zuen. Bertze bertsolari senpenter bat, Matxin Irabola, ere, lau urtez

ibili zen gerlan eta gerlaren aurkako bertsoak bota zituen, zentsuratuak izan zirenak. 1935ean, I. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian txapeldunorde izan zen, arras ezaguna zen garai hartan. Gaur egungo belaunaldiek, ordea, haren berri gutti dute. Nazionalismo frantsesa puri-purian zen garaian bere bertsoetan islatu zuen pentsamendu euskaldunagatik deskalifikatua izan zen. Finean, gerlak Frantziari atxikitzeke baliatu dituzte eta hegoaldeko probintziekin alderatuz, egoera bertzelakoa izan da. Hegoaldean Gerla Frankista eta Karlistetan, aurkako fronte bat izan zen, Iparraldean ez bezala.

Kafe-Antzerki Zikloak hogeigarren edizioa beteko du

Azaroaren 9an abiatuko da Lixoia ostatuan, Ay Teatro taldearen 'Zaharrak berri' antzezlanarekin

TTIPI-TTAPA

Berako Euskara Batzordeak, Kultur Batzordearen eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz antolatutako Kafe-Antzerki Zikloaren hogeigarren edizioa **azaroaren 9an**, ortziraletatik arratseko 10:30ean abiatuko da Lixoia ostatuan, Ay Teatro taldearen *Zaharrak berri* antzezlanarekin. Nerea Gorriti eta Barbara Rivas dira antzezlan honetako aktoreak.

Lan horrek, 1818an kokatzen gaitu, asto-lasterrak debekatutako momentuan, baina emanaldi «klandestinoekin» segitzea erabaki dute. Gai hori ardatz hiru pieza satiriko osatutako antzezlan honetan aktoreek hainbat pertsonaia bizitza emanen diete, musika eta dantzarekin nahasiz. Emanaldian istorio pertsona-

lei buruz eta garai hartako emakumearen posizioaren aldarrikapenari buruz arituko dira.

Azaroaren 23an, ortziraletatik arratseko 10:30ean Xuga ostatuan *Irripar Txou* antzezlan aurkeztuko dute J. Cruz Gurrutxagak eta Jon Martinezek.

Elkar ezagutzen ez duten bi lagun eskenatoki gainean. Zer gerta daiteke biak lan bera egiteko kontratatu dituztela konturatzen direnean? Bada sesioan amaitu dezaketela, haserre, alegia. Horrela bada, haiek ez dira irribartsu egonen. Ikuslea bai, irriz lehertuko da! Izan ere, aktoreek ez dute gai bat jorratu gabe utziko, norberak bere estiloan, baina biek umorea lagun: eskola garaiak eta gertakizunak, txikitatik nerabetasunera gertatutakoak,



Nerea Gorriti eta Barbara Rivas antzezleak, 'Zaharrak berri' antzezlanean.

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa feriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525





Sampi Aragón S.L.
 MARKA HAUTAN ESPEZIALISTAK
 Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura
 T. 948 450 354 | DONEZTEBE
 sampiaragon@sampiaragon.com



Andoni MENDIBURU ALTZURI
 Doneztebeko tratantea

Ofizioa afizio duen doneztebarra da Andoni Mendiburu. Hamasei urte zituela lotu zitzaion azientari: «motoa hartu eta bazterrak nahastera joaten nintzen». Ez zen gauek egunerako aldaketa izan berarentzat, etxean «betidanik» ikusia zuen bizimodu hori: «gure aitzinekoak tratante familia ziren, bai amatxiren aldetik, baita atautxiren aldetik ere». Garai batean, lan gehien «holandar behiekin, haragitako behiekin, piriniarrekin, suitzarrekin eta mestizoekin...» egiten zuten. Orain, berriz, behi-limusina «aunitz» saltzen dute. «Arraza aunitzetako» behiak ibili badituzte ere, «eskualdean piriniar behiak eta mestizoak» dira gehien mugitu dituztenak. «Behiak, zaldia eta aretzeak» ez ezik, «zerrikume gutti batzuk, ardiak eta bildotsak ere» erosi eta saltzen dituzte. Garai batean, «orain dela hamabotz bat urtera arte», zerriak ere izaten zituzten. Dena dela, batzuk zein bertzeak, «salerosketarako dira, etxeokoz ez ditugu izaten».

«Donezteben ere inguruko abeltzainei deitu eta plazara ateratzeko laguntza eman beharko liekete»

ditudanak Torrelavegara eramaten dituzte; asteazken eta ortzegunetan hiltegiak joan edo gidak egin behar izaten ditugu; eta ortzirale eta larunbatak azientak erosteko baliatzen ditugu». Lan horiek guztiak egiteko, «aitaren eta inguruko lagunenganduz» izaten du: «azienta garraiatzen, erraterako, aunitz laguntzen didate». Laguntzak laguntza, ez da begira egoten den horietakoa; atsedean «guttitan» hartzen du. Are gehiago, aunitzetan asteko zazpi egunak egiten ditu lan: «inguruan aunitzek fabriketan edo eraikuntzan lan egiten dute eta horiek asteburuetan deitzen didate. Igande aunitzetan kargatzen joan behar izaten dut». Jaiegunak hartzeko zailtasunak izaten ditu: «modu bakarra telefonoa itzaltzea eta hemendik alde egitea da».

TRABAK GAINDITUZ

Gustuko du lana, baina horrek ez du erraza denik erran nahi: «kexak ez dira gutti eta hori jasan behar da». Orokorrean, «haragietako behiekin» ez dute arazorik izaten: «azken batean txorizoak edo hanburgesak egiteko izaten dira eta». Aitzitik, bizirik dauden behiekin jendeak akatsak «nonahi» ikusten dituela gaineratu du: «batek gauza bat duela eta bertzeak bertzea, ordaintzen duten arte dena erreklamazioak dira, aitzakiak». Ordaindu ondotik dator bakea: «orduak hagitx ongi daude eta hagitx onak dira». Horretarako jarria badago ere, zenbaitetan «bolada txarrak» izaten dituztela gaineratu du: «orain bera, aretzea arrotz gaizki dago eta trabak

LANEZ LEPO

Eguneroko martxa finkatua du: «astelehenetan aretzeak bildu eta, gauza bat eta bertzea dela, eguna joaten zait; asteartetan, hemen saldu ez



Probatu... kiloko Mikelo txuletoa, harrian egina

- Entsalada epelak
- Plater konbinatuak
- Arrautza frijituak
- Hanburgesak
- Ogitartekoak
- Sandwichak
- Errazioak

Ongi pasa feriak!!!

ETXEKO POSTREAK ere dasta itzazu
 T. 948 450 442 Ameztia, 5 - DONEZTEBE

Mendiburu
aziendak • tratantea

Ongi pasa feriak!



608 676 221
 948 450 084
 DONEZTEBE

Mendaur Motor
 Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura



ongi pasa feriak!



ALTxUNEA ERRETEGIA

IREKITA
 ostiral eguerditik igande eguerdira, besta egunetan eta besta bezperatan

Kontsejo, 27 · ITUREN
 T. 948 450 410

daudenean ona izanda ere ez da begi onez ikusten». Ez da lan erraza eta argi du hori Mendiburuk: «guk ttikitatik ikusi dugu eta badugu horren berri... baina, hutsetik hastera doanak probatu arte ez daki zer den».

PLAZAK EZAGUTZERA EMATEKO GUNE

Asturiasen, Kantabrian eta Burgosen... ibiltzen da. Eta noski, Euskal Herrian izaten diren azoketan ere ez du hutsik egiten: «Iparraldean, Gipuzkoan eta Nafarroan ere baditut urteroko hitzordu batzuk». Plazak «erreferentzia bilatzeko» baliagarriak dira bere ustez: «zerekin ibiltzen garen eta zer dugun ikusarazteko». Garai batean plazek salmenta gune izaera ere bazuten arren, gaur egun, inguruko plazetan saltzen dena «aitzinetik erdi hitzartutakoa» dela nabarmendu du. Eskualdean ez bezala, «Torrelavegan edota bertzelako feria handiagoetan egoera ez da bera: «han garestiago edo merkeago, azienda onak eta txarrak saltzen dira; eta horrek askatasuna ematen digu». Mendiburutarrei inguruko salmenta beherakadak ez die oztoporik eragin. Harat eta horrat joanez, eta harekin eta horrekin mintzatuz, «gero eta gehiago» saltzen dute: «lehen hemen saltzen genuena saltzeko, orain kanpora jo behar izaten dugu: Logroñora, Soriara, Gironara, Salamankara eta Zamorara... joanez, merkatua handitu dugu».

HERRIKO FERIAK GAINBEHERAN

Duela «hogeita hamar urte inguru» hasi zen herriko ferietan parte hartzen. «atautxiren aitatik hasi eta nireganaino ailegatu da zaletasuna». Urte horietan guztietan aldaketa handia sumatu du: «hemengo feriak ez dira feriak. Orain dela hogeita hamar urte Doneztebe edo Elizondora 40 behi eramanez gero, 35

«Ordaintzen duten arte dena erreklamazioak dira, aitzakiak»

salduko ziren». Horren harira, bizimodua bera aldatu dela gaineratu du: «orduan etxe aunitzek zituzten esne-behiak. Gaur egun lau haztegi handi daude eta gehienek ez dute erosten; ez bada bolada txarra izan dutela...». Azienda kopuruan ere beherakada nabaria izan da: «nik oroitzen dudanez, lehen Gipuzkoa aldetik hiru tratante eta lruñetik bertze bat ere etortzen ziren. Gaur egun, lehengusua eta gu besterik ez gara». Izan dira «25-30 behi» atera dituzten urteak. Orain, ordea, guttiago ateratzen dituzte: «Elizondon, erraterako, 10-15 atera ditugu». Prestaketa-lanetan ere bada alderik: «lehen esneko behiak pasarella baterako bezala prestatzen ziren: garbitu, orraztu... denetarik egiten genuen, gaur egun, prestatu egiten da, baina ez horrenbertze». Edonola ere, udazkeneko ferietan «zaletasuna badela» ikusten du, «jendea biltzen baita». Baztanen, oraindik ere, «gazte aunitz» badenez, feria biziago dagoela uste du Mendiburuk: «Udalak bitartekoak jartzen ditu eta laguntza horiei esker azienda dezente ateratzen da. Donezteben ere hala egin behar lukete, inguruko abeltzain gazteei deitu eta horiek ateratzeko laguntza eman».

ETORKIZUNA INBERTSIOEN MENPE

Abeltzainen etorkizunak aukerak izan badituela uste du: «gauzak dezente samar eta balio duten ganaduekin eginez gero, bada aitzinera egiterik». Gehienetan, ordea, ez da hala jarduten: «etxe batzueira joaten naizenean harrituta gelditzen naiz, aziendetan 40.000 euroko balioa eta makinarian 140.000 euroko balioa ikusten dut. Akatsa hor dago».

ongi pasa feriak!



goldea
tailerra s.l.l.

Sikoa eta berri lantzerako makinaría eta lanabesen salmenta eta konponaketa

tel./fax: 948 450 060
e-mail: goldeatailerra@gmail.com
Pol. Industrial Aparan. 3
31740 Doneztebe (Nafarroa)

LULE
Kafetegia

ENKARGUAK HARTZEN DITUGU | ETXKO GOZOAK



Leitzako errep., 6 - behea DONEZTEBE
619 913 375 • CafeteriaLULE



miren elorza
"Etxeko ekoizpena"

CARNICERÍA | HARATEGIA

ETXKO PRODUKTUEN ATALA:
tripakiak, txuri-beltzak, txistorrak, saltxitxak,
hanburesak, enpanatuak, kroketak...

ENKARGUAK ETA ETXERA
ERAMATEKO ZERBITZUA



ONGI PASA FERIAK!!

Miren 620 570 049 · 948 450 040
Merkatarien karrika, 12 · DONEZTEBE

Mailposta

PUBLIZITATE BANAKETA / INPRIMATEGIA

EGUTEGIAK / TXARTELAK / KARTELAK / ORRI MUTUAK
KARTAZALAK / FOILETOAK / TALONARIOAK / BOLETOAK...
INPRIMITZEN DITUGU.

FOILETOAK / KARTELAK / EGUTEGIAK...
BANATZEN DITUGU.



(0034) 686 747 713
(0034) 648 847 167

Arribilagako bidea, 55 · 31793 NARBARTE (Na)
www.mailpostabuzoneos.com

ongi pasa feriak!

zergalan | asegi

asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



53 lagun omendu eta aurten hildako elkarteko kideak oroitu zituzten Gorraizen egin zuten ekitaldian. ZALDUA

547 lagun Gorraizen ospatu duten Bazkideen Egunean

Bertzeak bertze, omenaldia, urteko erreposoa eta literatur lehiaketako sari-banaketa izan zituzten

FERNANDO ETXEBERRIA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, 547 lagun bildu ziren Bazkideen Egunean. Aurten hildako bazkideak oroituz, hasi zuten eguna. Ondotik, elkarteko lehendakariak hartu zuen hitza, Bazkideen Egunaren helburuak argitzeko. Bi hitzetan, hildakoak oroitu eta ezkondurik 60 urte daramatzaten lau bikoteak, elkarturik 50 urte dituzten 20ak eta 85 urte beteko dituzten 29ak omentzea izan zuten jomuga.

Hildakoen artean, elkartean berebiziko arrastoa utzi duten

bi kideri aipamen berezia egin zien: Jose Urrutia, urte aunitzetx Saldiasako ordezkaria izandakoa; eta Felipe Ganboa, elkartearen sortzaileetako bat eta 25 urtez presidente izana.

Bidaia, ikastaroak eta ateraldiak

Bide batez, 2018an bildutako datuei egin zien tarte. Guztira 2.788 kide daude elkartean, 22 bidaia egin dituzte eta horietan guztietan 3.490 lagun ibili dira. 45 ikastaroetan 525 bazkidek eman dute izena eta 12 mendi-irteeretan 560 mendizalek parte hartu dute.

Ekonomikoki urte borobila

Elkartearentzat agintaldiko urte hobereana izan da 2018a. Hainbat erakundek emaniko laguntzetatik, 63.440,74 euro; bazkideen kuotetatik 23.770 euro; eta loteriatik jasotzea espero duten 9.000 euroei esker, guztira 96.210,74 euroko sarrera izan dute.

Ekainean presidentea eta zuzendaritza batzordea zehazteko hauteskundeak egiten dituzte eta horretarako boluntarioei deia ere luzatu zieten, elkartearen funtzionamendu egokia bermatzeko ezinbertzeko lana egiten dutela nabarmenduz.

Omenaldia eta sari-banaketa

Urteko erreposoa eginda, omenduei oroigarriak banatu eta literatur lehiaketako sari-banaketa egin zuten. Euskaraz eginiko sorkuntzetan, narrazio laburren kategorian, Pakita Mikelarenak lortu zuen lehendabiziko saria, *Lehengusua* lanari esker; Miren Itxaro Li-

zarraga izan zen bigarren, *Flipi eta Wiki Kurrilloak* idatziarekin. Poesia lanen artean ere lehenbiziko saria Mikelarenak lortu zuen, *Bertsoak 2018* lanarekin. Gaztelaraz idatzirikoei dagokienez, Margarita Mecoren *Cinco Meses* eta Blanca Bertizen *Impulso Irrefrenablek* lortu zituzten lehendabiziko eta bigarren sariak, hurrenez hurren. Poesian ere Bertiz izan zen garaile, *Apo-yada en tu Regazo* poesiarekin. Argazkilaritzan, Margarita Mecok eskuratu zuen lehen saria, *El Descanso del Aizkolari* argazkiari esker; eta bigarrena Victoriano Imbuluzketak jaso zuen *Arrigaztelu, cuadro en caserío de Sunbilla* lanarekin. Margolarien artean, Milagros Estebanen *Reparazeta* eta Blanca Jimenezen *Loretxoak* izan ziren sarituak.

Eguna borobiltzeko, bazkaria ederraz gozatu zuten. Bazkalondoan Jose Angelen musikaz eta Bittor Elizagoien bertsuez gozatu zuten.



FERNANDO ETXEBERRIA

Aiako Harrian izan dira elkarteko 44 mendizale

Elkarteko 44 mendizale Aiako Harrian izan ziren. Pikoketa jatetxean bildu ziren eta Elurretxe, Aritxulegi, Aialde, Erlaitz eta Elurretzen barna, abiapuntuan elkartu ziren berriz. Bazkari eta bazkalondo ederrean akitu zuten eguna.

Azaroaren 20an Eratsunera joanen dira

Urteko azken ibilaldiak egiten ari dira. Urriaren 16an, Aiako Harria egindako irteeran, oroitarazi zuten bezala, azaroaren 20an, asteartean, bertze mendi-irteera bat egiten dute elkarteko mendizaleek. Kasu honetan Eratsunera joanen dira.

Dani Martirenaren 'Cosimoren katiuskak' argitara

Ana Ibañez ilustratzailearekin batera Etxepare Saria irabazi zuen eta orain argitaratu du Pamiela argitaletxeak

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 19an banatu ziren Nafarroako hainbat euskara zerbitzuek antolatzen duten Etxepare Sariak. Hemeretzi lan aurkeztu ziren eta horien artean, Legasako Dani Martirena Indart eta Iruñeko Ana Ibañez Elosuaren *Cosimoren katiuskak* suertatu zen irabazle. 5.000 euroz gain, lan irabazlea Pamiela argitaletxeak argitara ematea lortu zuten saritzat eta urriaren 16an egin zuten liburuaren aurkezpena. Lan irabazlean, Cosimo eta

nistak. Cosimok zuhaitz batean eraiki du etxola, eta hortik inguruari erreparatzen dio. Egileek Italo Calvinoren *Ilbarone rampante* liburu ezagunaren erreferentzia gaurkotu dute, Cosimo haurrari baliabide berriak eman dizkiote eta, gizartearen kokatuz, edertasunaren aldarrikapena zabaldu dute.

Leire Bilbao idazleak, Leire Salaberria ilustratzaileak eta Asun Agiriano haur bibliotekariak osatutako epaimahaiak Etxepare Saria ematerakoan azpimarratu zuenez, «gogoe-



Ana Ibañez eta Legasako Dani Martirena, liburua aurkezten. UTZITAKO ARGAZKIA

tarako kontakizuna ere bada saritzen ari garen obra hau, testuak poesia du, umorea eta jolasa: hitzekin jolasten du idazleak, irudiekin marrazkilaria. Biek album ilustratu baten ezaugarriak bikain erakusten dute, hau da, irakurlea adi egotearena eta heldu baten konpainia ezinbestekoa izatearena, xehetasun guztiak harrapatzea nahi baditugu».

Etxepare 2019 sariketa abian

Haurrendako bilduma ilustratuen Etxepare sariketaren 2019ko ediziora aurkezteko epea irekita dago 2019ko maiatzaren 17ra arte. Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dira. Bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean parte hartu ahal izanen da.

DONEZTEBEN neurria egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber)
650 328 879 (Sergio)

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziarioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**2. faseko
AZKEN PISUAK
eta LOKALAK salgai**



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Errentako ehun etxebizitza sustatu nahi dituzte

Beran Babes Ofizialeko zortzi etxebizitza berri eta Iruritan hamar egiteko lehiaketak abian ditu Nasuvinsak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak landa inguruneetako etxebizitzak zaharbertzearen aldeko apustua indartu du, Iruñerrikanpo ere errentako etxebizitzak sustatzeko xedez. Jarduketa honi gehitu behar zaizkio, Errentako Etxebizitza Plana Lizarra, Tuteran, Bera, Irurita eta Garraldara hedatzeko Nasuvinsak abian dituen erakuntza berriko lehiaketak.

Nafarroako Gobernuak ehun etxebizitza baino gehiago gaineratuko dizkio landa inguruneetako errenta babestuko etxebizitza eskaintzari. Eskariaren nahiz prezioen goitirako bilakaerari aurre egiten lagunduko duen errentako etxebizitzaren eskaintza senezko prezioan areagotzearen aldeko apustu publikoari jarraiki eta eraikinen zaharbertzea hiri-birsorkuntzarako palankatzen erabiltzeko xedeari jarraiki –horietan baita Nafarroako Gobernuaren zein Nasuvinsa sozietate publikoaren etxebizitza-politikaren ardatzak–, Eskubide Sozialetako Departamentuak

Nafarroa osora hedatu nahi du filosofia hori.

Horren harira, Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak, Etxebizitza Zerbitzuko zuzendari Javier Etayok eta Nasuvinsako zuzendari kudeatzaile José M^a Aierdik Nafarroako dozena bat herri-tan errentako etxebizitza sustatzen lagunduko duten zenbait eraikin zaharbertzeko lanak iragarri dituzte.

Jarduketa horien artekoak dira, foru ondarekoak diren Zangoza, Erronkari eta Oronoz-Mugairiko lehengo bidezain etxeak berreskuratzeko lanak. Nasuvinsak duela hamar bat egun esleitu zituen lehen bi herrietako zaharbertze lanak, eta antzeko eskuhartzea aurreikusia du Oronozko bidezain etxe batean.

Nasuvinsa bertez 57 Babes Ofizialeko Etxebizitza sustatzen ari da lehiaketa berrien bidez: 20 Lizarran, 15 Tuteran, zortzi Beran, hamar Iruritan eta lau Garraldan, eta honen arkitektura proiektuak azaroaren hasieran esleituko dira.



ALICIA DEL CASTILLO

Baztan-Bidasoko pentsionistak martxan

Sortu berria den Baztan-Bidasoko Pentsionistak Martxan elkarteak deituta, kontzentrazioa egin zuten urriaren 22an, Doneztebeko Gizarte Segurantzaren bulegoaren aitzinean. *Mugi hadi, betikoek irabaz ez dezaten; 1.080 euro hemen eta orain!* goiburupean egin dute elkarretaratzea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hondakinen urteko azken zozketa

Hondakinen egutegiko zozketaren 2018ko laugarren eta azken sariduna Gazteluko Jose Ramon Mitxeo Indakotxea izan da. Zozketa urriaren 2an egin zen eta Andoni Amutxastegi, hiri-hondakinen teknikaria, izan zen saria eskura emateko arduraduna, argazkian ikusten den moduan

BEROTZA
PELLET



948 450 063-620 886 443 | info@berotza.es - www.berotza.es | 31745 ITUREN

Pellet banaketa
ETXERAKO ZERBITZUA



Azaroko kultur egitaraua betea dator aurten ere

Kultur taldeak dinamika aldatuko du eta azaroko kultur eskaintza urte osora zabalduko du

TTIPI-TTAPA

Azaro Kulturala zena Kultur Agenda izanen da aurrerantzean. Izan ere, kultur taldeak eskaintza urte osora zabalduko du. Bi-hiru hilabetero Agenda argitaratuko dute eta hor bilduko da hilabete horietako eskaintza. Horrek ez du azaroko ekitaldiak antolatzea galaraziko. Areago, aurten, Udalaren, Euskara Zerbitzua-ren, Gizarte Zerbitzuen, Umore-Ona elkartearen eta Guraso Elkartearen elkarlanari esker, askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izanen dute.

Azaroaren 3an abiatuko dute ibilbide kulturala, *Ttak* antzerkiaren gozatzeko parada izanen dute ganbaran, larunbatean 18:30ean. Biharamunean, igandean, Jubilatuen Eguna izanen dute. Hilaren 9an *Alu Ulu* antzerkiaren buel-



Azaroaren 24an izanen da feria.

tan bilduko dira, ganbaran, 19:00etan. Umeentzako jolasak eta txokolate beroa izanen dira larunbateko hitzorduak, azaroaren 10ean. Igandean, hilak 11, 12:30ean, musikazaleen hitzordua izanen da. Oiarzungo Lartaun eta Umore Ona abesbatzen doinuek girotuko dute eliza. Azaroaren 16an, alardea izanen dute hizpide, 18:30ean, ganbaran.

Azaroaren 24an izanen da Azienda Feria eguna eta bez-

peran ere zerbait antolatzeko asmoa bada. Hilabetea bukatzeko, azaroaren 30ean, *Gurean* dokumentala eskainiko dute (18:30).

Abendu erdialdetik aurrera, Eguberrietako prestaketei ekinen diete. Abenduaren 15ean, errege opilak egiten ikasteko ikastaroa eskainiko dute, 10:00etatik 13:00etara (aurretik izena eman behar da). Abenduaren 22an, nazioarteko jaia antolatzeko asmoa dago eta, urtea bukatzeko, abenduaren 30ean haurrentzako zinea izanen da.

Jarduerak ez dute etenik izanen aurrerantzean ere, eta horien berri hurrengo zenbakietan emanen da, hurbiltzen eta zehazten diren neurrian.

Guraso Elkartearen aldaketak egin dituzte

Beste aldetik, urriaren 15ean egindako bilera orokorrean, urtero Guraso Elkartearen komisioaren erdia berri behar dela eta, kide berriak onartu zituzten.

Izaskun Makazaga izanen da diruzaina eta Olaia Lekua eta Mari Jose Zabala izanen dira Garbiñe Etxegia, Arantxa Ansa eta Belkis Herrera ordezkatu dituztenak.



Kanpainaren irudia.

Zaintza-lanetaz kontzientziatzeko kanpaina abiatu da eskualdean

TTIPI-TTAPA


Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Batzordeak zaintza-lanen balioari buruz kontzientziatzeko kanpaina bat abian jarri du. Kontuan hartu behar da lan horiek direla bizitzari sostengua ematen eta etxeko eguneroko funtzionamendua ahalbideratzen dutenak. Nafarroan zaintza-lanak emakumeen jardura izaten jarraitzen du. Emakumeen %91,3k eguneko lau ordu baino gehiago ematen du etxeko lanetan eta familia zaintzen; gizonezkoen %75,9k, berriz, bi ordu eta erdi, besterik ez.

Kanpainaren helburua jendea zaintza lanen garrantziaz ohartaraztea da, ezinbestekoak baitira eguneroko bizitzaren funtzionamendurako eta pertsona guztien ongizaterako. Beharrezkoa da, gainera, elkar zaintzea eta zaintza-lanak berdintasunez banatzea, bizitza on bat izateko.

Kanpainak irudi bat eta honako lelo hau dauka: *Ni zainduz, zu zainduz, gu zainduta*. Mezua hainbat euskarritan zabalduko da: udalen web orrietan, sare sozialetan, ikastetxeetan ikasleei bokata eramateko banatuko zaie zapietan, prentsa idatzian eta karteletan.

Zubimuxu aterpea hartzeko deialdia egin du Udalak

Zubimuxu aterpetxearen zerbitzua kudeatzeko lizitazioa atera du Udalak. Hasiere batean, bi urterako kontratua izanen da, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin, gehienez ere bost urte. Urtean, guxtienez 1.800 euro eta gehienez 3.000 euro arteko eskaintzak onartuko ditu Udalak. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita 25 eguneko epea izanen da eskaintzak aurkezteko. Informazio gehiago udaletxean edo www.goizueta.eus atarian eskura daiteke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hiru ikastaro atera dira aurrera aurten

Hasi dira ikasturte honetako udal ikastaroak. Hiru ikastaro atera dira aurrera: Jumpfit, Pilates eta Total Training. Gogorazi Total Trainingen plazak libre gelditu direla eta norbaitek izena eman nahi badu, badu aukera oraindik. Klaseak astearte eta ostegunetan, 19:30etik 20:30era dira.



Azokaren laugarren edizioa izanen da eta 30 ekoizle bilduko dira ARTXIBOKOA

Leitza eta Aresoko ekoizleen azoka azaroaren 11n

Ostatu eta jatetxeen eskutik, ostiralean pintxo-potea eta igandean menu berezia izanen dituzte

JM BARRIOLA

«Bertako produktu eta ekoizleei dagokien lekua emateko eta herritarrek bertako produktuak kontsumitzeko arduraz hartzeko» helburuz, hogeita hamar bat ekoizle bilduko dira azaroaren 11n plazan. Animalia eta hegaztien erakusketaz gainera, udazken sasoko produktuez osatutako salmenta postuak egonen dira.

Laugarren edizioak berrikuntzak dakartza. Izan ere, aurten Leitza eta Aresoko ostatu eta jatetxeek, bertako produktuen alde egiten ari diren apustua ikustarazteko,

bi ekimen garatuko dituzte. Ostiralean, azaroak 9, bertako produktuen pintxo-potea egingen dute Leitzako ostatu etan. Azoka egunean, berriz, Leitza eta Aresoko ostatu eta jatetxeek bertako produktuekin osatutako Azoka Menua eta plater bereziak eskainiko dituzte. Bi ekimen horietako jatetxe eta ostatu parte-hartzaileek identifikagarriak izanen dituzte.

Horrela bada, «guztionez izanen den elikadura eredu osasuntsu, burujabe, jasangarri eta justura» bidean urrats bat gehiago emanen dute.

Udalak karrapean moldaketa-lanak egiteko asmoa du

JM BARRIOLA

Nafarroako Gobernuak ekipamendu publikoak egokitzeko egindako diru-laguntza deialdian, Leitzako Udalak hainbat hobekuntza egiteko diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen. Laguntza horrekin, karrapean moldaketak egiteko asmotan

dabilta. Besteak beste, paretak garbitu eta konpondu, gidaridun atek edo irristailu-ateak jarri, udaletxeko mendealdeko fatxada moldatu, argia aldatu... nahi dute. Horrekin guztiarekin itxura hobetu eta erabilera sustatuko lukete.



LEITZAKO UDALA

Leitzaran ibaia garbitu dute auzolanean

Argazkiko taldeak Leitzaran erreka garbitu zuten urriaren 12an auzolanean. Tona bat zabor atera zuen. Herritarrek hiru urtez hiru auzolan egin dituzte eta guztira lau tona baino gehiago ateratzea lortu dute. Tartean gurpilak, plastikoak, bidoiak, sofak... bildu dituzte. Bada oraindik zer hausnartua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakume baserritarren bilkura

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, emakume baserritarren bilkura egin zuten urriaren 15ean. Baserritik soilik bizi diren edota diru-iturri nagusia baserria duten 12 lagun bildu ziren eta beraien nahiak, ametsak, beharrak eta etorkizunerako erronkak izan zituzten hizpide.

Anikotek haur eta gazteen ikastaroen egutegia atera du

Urriari abiatu zituzten ikastaroak. Halere, ikasturte hasieran egutegia zehazteko zuten. Hori horrela, orain, azarotik aurrera ikastarorik izanen ez den egunak gorritz markatuta, egutegi bat kaleratu berri dute. Anikoteren Twitterrean dago eskuragarri.

Euskal Herria Mendi Erronkaren VII. edizioa maiatzean

Leitza, Araitz-Betelu eta Larraun-Lekunberrikelkarlanean bi urtetik behin antolatzen duten Euskal Herria Mendi Erronkaren VII. edizioa izanen dute 2019an. Ikasturtean sarturik, antolatze-lanei ekin diete. Maiatzaren 18an zehaztu dute hitzordua.



Formatzailearekin eta gizarte-langilearekin bilduko dira. UTZITAKO ARGAZKIA

Ekuatoriarrak elkartzeko gunea sortu dute

Hurrengo hitzorduak azaroaren 5ean, 12an, 19an, 26an eta abenduaren 10ean eta 17an izanen dituzte.

JM BARRIOLA

Sorburu elkartearen eskutik, «familia eta bizimodua gure herrialdeetan utziz, migratu duten emakumeek dituzten istorioez elkarrekin hitz egiteko eta gogoeta egiteko» gunea bat sortu dute. Horrekin «zailtasunak, zalantzak, nostalgiaz, pozak, adorea, ametsak, itxaropenak...» partekatze elkartu eta elkarrengandik ikastea lortu nahi dute. Hogei lagunek eman dute izena.

Besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: norbere burua emakume bezala identifikatu eta jabetzea; lan munduko

eskubideak; migratzeko prozesua; amatasuna bizitzeko moduak; zaintza lanak; eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako borroka.

Urriaren 22an hasi zituzten saioak. Guztira zortzi saio egingen dituzte eta astelehenean bilduko dira, herriko eskolan, bi orduz, 17:00etatik 19:00etara bitarte, Sorburu elkarte formatzaile den Beatriz Zalakainekin eta Gizarte Zerbitzuko gizarte-langile bat izanen dituzte gidari. Hurrengo hitzorduak azaroaren 5ean, 12an, 19an eta 26an eta abenduaren 10ean eta 17an izanen dituzte.

109 argi-puntu aldatuz argindarraren kontsumoa %62 murriztuko da

JM BARRIOLA

Udalak, herriko hainbat auzotan argiteria publikoa aldatzeko lortutako diru-laguntzari esker, herriko argiteria aldatzeko lanak egin ditu. Lan horiei esker, argindarraren kontsumoa %62 murriztea lortu da. Lehenbiziko fasean guzti-

ra 109 argi-puntu aldatu dituzte, LED motako argiteria jarriz: Landa industriagunean eta Elgoien zein Elbarren kaleetan. EKOLEDs enpresak egin ditu lanak. Guztira 48.000 euroko aurrekontua zuten eta %70a laguntzetatik ordaindu dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kaxuelaren Astean saritua Alex Mugika

Alex Mugika sukaldari leitzarrak zilarrezko saria irabazi du XVII. Nafarroako Kaxuela eta Ardoaren Astean, 'Baratzuri Zopa, Faltzesi omenaldia' izeneko mokadutxoari esker. Ez da lehenengo garaipena izan. 2013, 2014 eta 2017an sari nagusia eskuratu zuen Mugikak.

'Leitza urratsez urrats' Nafarroako Eskola Kontseiluko Jardunaldietara

JM BARRIOLA

Nafarroako eskolen Berrikuntza Proiektuen artean, Amazabal BHI ikastetxeak 2017-2018 ikasturtean egin zuen *Leitza urratsez urrats* proiektua aukeratu dute. Urriaren 23an Tuteran aurkeztu zuten eta azaroaren 7an, heldu den asteazkenean, Nafarroako Museoan aurkeztuko dute.

Proiektu horrekin, Amazabal ikastetxeko ikasleek bestelako mugikotasun eredu bat aldarrikatu nahi izan zuten, Leitza oinez eta seguru ibili nahi zutelako adieraziz. Besteak




Kalejirarekin borobildu zuten proiektua.

beste, oztopo arkitektonikoen eta ibilgailuen erabilerari buruzko hausnarketa sustatu zuten. Lanketari kalejira erraldoi batekin eman zioten bukaera.

Iera Agirre lau eta erdiko txapelketan lehenbizikoz

Lehen mailan jokatuko du leitzarrak. Azaroaren 11n hasiko dute txapelketa Elgeta pilotalekuan, 12:00etan. Olatz Ruiz de Larramendi eta Leire Etxaniz –txapelduna–, izanen ditu aurkari.



Hiri eta landa lurren zergak ordaintzeko epea zabalik

Udalak heldu den urteko kontribuzioan aldaketak izango direla iragarri du

TTIPI-TTAPA

2018 urteari dagokion kanona ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 16ra artekoa izango da. Abenduaren 16ra arte ehuneko bosteko gainkargua izango dute eta handik aurrera, berriz, ehuneko hogeikoa.

Horri lotuta, balorazio ponentzia eguneratzen ari direla jakinarazi du Udalak. Ondorioz, hurrengo urteko kontribuzioan aldaketak izango direla adierazi dute; batzuei kanona jaitsi, besteei igo. Balorazio ponentziak ondasun

higiezin balorazio bat egiten du gero horri kontribuzioa kobratzeko erabiltzen den tasa aplikatzeko (aurten Areson 0,29 hiri lurretan eta 0,80 landa lurretan). Heldu den urtean denak bateratu eta tasa denean 0,27 izatea proposatu dute, horrela egungo diru bilketa mantentzea lortuko delarik. Tracasako teknikariek proposamena egin dute eta orain jabeei gutun bidez informazioa bidaliko zaie, nahi izatera, Udaletxean hitzordua eskatu eta teknikariek zalantzak argitzeko bidea izan dezaten.



NAZABAL ESKOLA

Zugarramurdira irteera ikasleek

Orain arte ikasturte bukaeran egiten zuten ateraldia aurreratu eta urriaren 9ko gaua etxetik kanpo eman dute Nazabal eskolako ikasleek. Lotarako zakuak hartuta, Zugarramurdira joan dira. Besteak beste lezeak bisitatu, Sorginen Etxean lo egin... Primeran pasa dute!



OHIANA CALPARSORO

Emakume baseritarren erakusketa

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, haien lana aitortzeko helburuz, 'Zuen lanaren haritik...' emakume baseritarren erakusketa jarri zen Maisuenean. Urriaren 21ean ireki zituzten ateak eta San Martin Egunera arte igandero zabalik izanen dira, 10:30etik 13:00etara.

Herritarrek Euskaraldiari keinu egin diote

OHIANA CALPARSORO

Urriaren 21ean Euskaraldiari keinu egin zieten aranoarrek. Tabernako arbelean egitasmoarekin lotutako aho eta belarriak marraztu zituzten, eta izena emateko aukera eskaini zuten. Bertaratu zirenetatik askok ez zuten izena emateko aukera pasatzen utzi nahi izan.



Taberna apaindu zuten.

Azaroaren 9an eta 11n

Oraindik ere bada aukerarik. Herritarrek www.euskaraldia.eus orrialdean eman dezake izena. Dena dela, azaroaren

9an iluntzean eta 11n gauean izena emateko zailtasunak edo arazoak dituztenei laguntzeko bilduko dira, Kontsejun. Jakinarazi dutenez, «pozik eta esku zabalik hartuko ditugu».



1949 urteaz geroztik kultur intereseko ondare gisa babestua dago Iruritako Dorrea. NAFARROAKO GOBERNUA

Iruritako Dorrea publikoari irekitzeko elkarlanean ari dira

Hitzarmena sinatuko dute Udalak eta Nafarroako Gobernuak, 2016an hasitako lanak 2019an akitu daitezzen

TTIPI-TTAPA

Udala eta Nafarroako Gobernuak lankidetzan arituko dira Iruritako Dorrea etorkizunean publikoari irekitzeko. 2016an hasi ziren dorrea zaharberritzen, eta 2019an akituko dituzte lanak. Lankidetzarako terminoak Nafarroako Gobernuak urriaren 17ko bileran onartutako eta bi erakundeek sinatuko duten hitzarmenean jasotzen dira. Dorrea Erdi Arokoa da, eta ziurrenik, Baztango dorretxe zaharrena da.

Lankidetzak

Lankidetzarako hitzarmenean jasotakoaren arabera, Vianako Printzea Erakundeak - Kultura Zuzendaritza Nagusiak obraren ondoz ondoko faseen kostua bere gain hartu du, eta baita dorrearen aldamiogonkortzailea ezartzeak sortuko dituen gastuak ere. Bertzalde,

Udalak behar diren kudeaketak eginen ditu dorrerako bideak erabilera publikoko beharrak bete ditzan. Udaltxeak ordainduko ditu sarbide horien kostuak.

Zaharberritze-obrek iraun bitartean, Udalak eraikinera erabileren programazio bat kudeatu eta proposatuko dio Gobernuari, eraikinaren babes-erregimenarekin bateragarriak diren hiritarren irisgarritasuna eta bisita bermatzeko. Programazio horrek irekierako ordutegiak eta sartzeko baldintzak zehaztuko ditu.

2019AN AKITUKO DITUZTEN LANEK 319.418 EUROKO AURREKONTUA DUTE

Zaharberritze-prozesua

2001ean, Udalak 120.000 euro ingururen truke erosi zuen dorrea. Arras egoera ezegonkorrean zegoen, eta hura mantentzea eta haren erabilera publikoa bermatzea zen helburua. Higieztina kultur intereseko ondare gisa babestuta dago 1949az geroztik, eta Nafarroako Gobernuak 2013tik babestutako eta mugatutako ingurunearekin hornituta dauka.

Dorrea erortzeko zorian zegoen, eta 2014an premiazko hainbat ekintza abiarazi (egonkortzaile bat jartzea hegoaldeko eta ipar-ekialdeko fatxadetan, eta eskorak barneegitura osoan), eta gero, 2016an, Gobernuak dorrea zaharberritzeko lehen fasea burutu zuen. Lan hura dorrea egonkortzean oinarritu zen, eta 482.075 euroko kostua izan zuen. Egurrezko barneegitura desmuntatu eta gero, inguruko hormak egonkortu ziren.

2017an, bigarren fasea egin zen. Egurrezko barneegitura eta estalkiak berreraiki ziren, eta 618.248 euroko kostua izan zuen. 2018an, hirugarren faseko lanak esleitu dira. Obra horiek 2019an akituko dira, eta 319.418 euroko aurrekontua dute.

Aire zabaleko pintura lehiaketa azaroaren 4an

Jose Mari Apezetxea zenaren omenez aire zabaleko pintura lehiaketa antolatu du Elizondoko Kasinok igande honetan, Ziga, Aniz eta Berroeta izanen dira margolanak egiteko aurtengo gaiak. Izen-ematea Elizondoko Kasinon egin behar da 08:30etik aitzinera.

Folk Ametsetan Zikloan bi emanaldi izanen dira aurten

Arte eta Kultura programan antolatutako Folk Ametsetan Zikloaren baitan bi emanaldi izanen dira Arizkunenean. Azaroaren 4an, *De mar a mar*, Mediterraneotik Itsaso Barearako musika izanen da eta azaroaren 11an, *Maraya Zydeco* taldea (19:00etan).

Fernando Manterolaren argazki erakusketa

Fernando Manterolaren *Argazkien bitartez Photos & Montajes* argazki erakusketa ikusgai izanen da azaroaren 1etik 28ra Arizkunenean. Asteartetik ortzirralera (17:00-20:30) eta larunbat eta besta egunetan (11:30-13:30 eta 17:30-20:30) irekiko dira atek.

Bailableak azaroaren 11n Elizondoko plazan

Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaiteroak taldeek antolatuta Bailableak (Muxikoak, Jotak, Larrain Dantza, gaita...) eginen dituzte azaroaren 11n, igandean 12:45ean Elizondoko plazan. Euria eginen balu pilotaleku estalian izanen litzateke saioa.

Herri-bazkalekuetan inbertsioak egin ditu Balleko Etxeak

Belateko bazkalekutik Donamariara doan bidea ere berritu du Udalak, eta horretarako 1.800 euroko inbertsioa egin du

TTIPI-TTAPA

Udako hilabeteetan Baztango bazkaleku komunaletan lanak egin ditu Udalak. Erdizko Bihotzeko ziloko alderdian adibidez aska bat egin du. Horretarako, 1.699 euroko inbertitu ditu. Aska hori nekazarien eskaera zen, urtero bazkaleku komunaletako nekazariekin egiten duten bilkuran aipatutakoa. Erdizen ere, Larrakarte alderdian hondatutako aska berritu du udalak, 2.460 euroan. Lan guztiak Urballo enpresak egin ditu.



Bihotzeko Ziloko aska berria.

sasiak moztu ditu Udalak eta bazka hobetu eta indartzeko mineral ekologikoa hedatu du. Bortz urte dira aipatu herri-bazkalekuek ziurtagiri ekologikoa dutela, denera 1000 hektarea. Aipagarria da, modu berean, hiru herri-bazkaleku horietan urtero 700 behi buru eta 80 betizu, 2.700 ardi buru inguru eta 240 zaldi-behor alhatzen dituztela. Horiek denak 200 abeltzainenak.

Belatetik Donamariara bidea

Bertzalde Belateko bazkalekutik Donamariara doan bidea ere berritu du udalak. 1.800 euroko kostua izan du eta Almakok egin du. Gainerakoan urtero bezala Erdiz, Lizartzu eta Belateko bazkalekuetako



JUAN MARI ONDIKOL

Beartzungo auzotarren besta

Urriaren 6an ospatu zuten Beartzungo Eguna. Xorrotxeneko Pakita Iturregik piztutako altxaferoarekin hasi zuten besta, erraldoi eta gaiteroak, herri kirolak, bazkaria, Menditarrak taldearen kantaldia, Santxotenarekin dantzaldia... Afal ondoko dantzaldiarekin agurtu zuten eguna.



TESTUA ETA ARGAZKIA: NEREA MORTALENA

Urriko zikiroa jendetsua Arraiozen

Aurten sekulan izan den jendetsuena izan da urriko zikiroa Arraiozen, 103 pertsona izan baitziren bazkaltzen urriko lehen larunbatean. Bazkaldu eta gero, musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera izan zuten arraioztarrek. Tradizio batzuk oraindik bizirik segitzen dute.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Prozesioa eta sendotza Zigan

Aspaldiko ohitura mantenduz urriaren 12an, Egozkue jauregian dagoen Pilarika ermitara prozesioa egin zuten. Eguraldi ona lagun aurten ere haur eta heldu, Amabirjina soinburuan harturik, Putxurin beheiti Egozkuera joan-etorria egin zuten. Bertzalde, 13 gaztek sendotza egin zuten egun berean Zigako elizan.



Osatuz

Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki

GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILI PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak

619 343 755 Altzate 1 BERA

Bide publikoetan 14.219 euroko inbertsioak egin dira

Arizkungo Bergara auzotik Azpilkuetako Apaioarat doana moldatzen egin da inbertsiorik handiena

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalaren ardurapeko bide publikoetan lanak egin dira hilabete hauetan.

Amairuko hilerriko bidearen hasmentako bihurtunean, adibidez, Xurteleko erreka hodiekin bideratu eta tarte hori zolaberritu du Udalak, bidearen gainetik pasatzen zen erreka hormigoi zola arrailtzen eta kaltetzen baitzuen gelditu gabe. Lanak Almacok, 3.500 eurotan egin ditu.

Bertzalde, Arizkungo Bergarako auzotik Azpilkuetako Apaioarat doan bidean lurmendia izana zen eta bidea hondaturik zegoen. Udalak bidea zabaldu du, harri-lubeta edo *eskollera* egin eta ingurua garbitu. Denera 7.210 euroko kostua izan duen lana Luis Azkarragak egin du.

Azpilkuetan ere, Larraingo bordako bidean bi bihurtune zabaldu dira, 3.509 euroan. Kasu honetan lana Isidro Goñi eskabazio enpresak egin du.



Amairuko Txiskieneko bidean moldaketak egin dituzte. UTZITAKO ARGAZKIA



JUAN MARI ONDIKOL

Baztan futbol taldea minbiziaren aurka

Kirola eta elkartasuna lotu zituen urriaren 20an Baztan futbol taldeak. Burlades taldearen kontra berdindu egin zuen Giltxaurdin, eta partida horretako diru-sarrera guztiak minbiziaren kontrako borroka laguntzeko bideratu ditu. Bi taldeek eta epaileek elkarrekin atera zuten argazkia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kortariko Borda bigarren Idiazabalen

40 gazta egileren artean, Elgoibarko Mausitxa gaztandegiak lortu du garaipena Euskal Herriko 35. Artzai Gazta lehiaketan, urriaren 14an Idiazabalen. Bigarren postuan gelditu da Lekarozko Oranideko Kortariko borda gaztandegia, eta hirugarrenaren saria Javier Muñoa zeraindarrak lortu du.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
CONSTRUCCIÓN

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

**MARMOLES
SOULE**

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO



Urriaren 24an egin zuten prentsurrekoa. JM ONDIKOL

Palacio de Arozteguiaren salaketa atxibatuta

Nafarroako Auzitegi Nagusiak tokiko gobernu batzordeko kideen aurka jarritako salaketa artxibatzea erabaki du

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak adierazi duenez, 2017ko ereiaroan «Aroztegiako pelotazo urbanistikoaren kontra Elizondoko plazan egin zen kanpaldiak mindurik, Elizondoko plaza herritarrei uzteagatik prebarikazio eta diru publikoaren erabilera makurratik» sala-

keta paratu zien Palacio de Arozteguiak. Lehendabizi Nafarroako Administrazio Auzitegirat jo zuten: «helegitea aurkeztu genuen, baina ez ziguten kasurik egin». Hortaz, Auzitegi Nagusirat jo zuten «zigor alorreko salaketa hori paratuz». Azkenean, epaileak salaketa artxibatu du. Artxi-

batu baino lehen Iruñerat deklaraterat hirutan joan behar izan dute: «batean grabaketa sistemaren akatsarengatik eta bertzean akusazioa gaztigatu ez zutelako; urriaren 15ean deklaratu ahal izan genuen» adierazi dute. Salaketaren helburua «argia» da haien ustez: «gure izenak zikintzea eta gu beldurraraztea». Hala ere, Palacio de Arozteguiak «eztabaida soziala galdu duela» gaineratu dute: «herritarrek badakite proiektua Baztanen kalterako dela». Horregatik, «gelditzen zaien bidea inposizioarena da, eta hori UGPa-ekin eta salaketa judizialekin egiten dutela» uste dute.

Bortzgarren salaketa

Bortzgarren salaketa judiziala izan da: «Garbiñe Elizegi alkate ohiaren kontra bi, oraingo alkatearen eta zortzi herritarren aurka bertze bana eta Elizondoko plazari buruzko hau». Urriaren 24ko agerraldian adierazi zuten «erabateko ofentsiba judiziala da» eta, «beraien posizio ekonomikoa baliatuz, soberan duten aberastasuna aprobeztatuz herritar eta hautetsi arruntak estu hartzeko». Proiektua egin ahal izateko eman dituzten urratsak

ere eztabaidatu zituzten: «Baztango erakundeen gainetik PSIS erabiliz hasi ziren, komunalak eta partikularren lurak jabeen borondatearen kontra Aroztegiako Banaketa eremuan sarraraziz eta bururik gabeko errekalifikazioak eginez. Horrekin aski ez, eta herrietako plaza publikoetan nork zer egin beraiek erabaki nahi dute. Beren proiektuarekin Baztanen instalaturik direlarik, zer ez ote dute eginen?».

«Baztango plazak eta Elizondokoa bereziki edozein adierazpide eta agerpeneterako» erabili izan direla nabarmendu, eta Udalak «plazaren erabilera bereizketarik gabe baimendu dituela» argitu nahi izan du. Areago, baimentzen segituko dute: «herritar guztiei espazio publikoa, argia, plater eta edalontzi bererabilgarriak utzi zaizkie. Eta uzten segituko dugu. Gu hemen gauden artean, bederen, herriko plazek herritarrendako izaten segituko dute». Proiektuarekin aitzinerat segitzen dute, «inposizioarekin eta ofentsiba judizialarekin ere bai. Baina arrazoia guk dugu. Ez gaituzte menpean hartuko» erranez bukatu zuten prentsurrekoa.

XIX. Kirikoketa Besta Arizkun en eginen dute azaroaren 3an

TTIPI-TTAPA ARIZKUN

Jo ala Jo Kultur Taldeak hemertzigarren urtez antolatutako duen Kirikoketa Besta azaroaren 3an ospatuko dute Arizkun.

Egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte, baina aurtengoa berezia izanen da. Izan ere, Eusko Ikaskuntzaren sorreraren 100. urteurrena da aurten. Baztandar Mutil-dantzariak 1918. urtean Oñatin izan ziren beraien dantza erakustaldia egiten eta aurten, mende bat beranduago, Oñatiko Oñatz dantza taldea eto-



Dantzarik ez da faltako. ARTXIBOKOA

rriko da Arizkunera dantzazera.

Egitaraua

Larunbatean, 10:40an ohi bezala, ibilaldia eginen dute Gamioxarrera. 11:00etan ha-

rrera eta ate irekiera eginen dute eta ondotik sagardogintza erakustaldian bilduko dira, XVIII. mendeko dolaretxean. 11:15ean Baztango gaitariak eta kankailuak ibiliko dira herrian eta Txalapartaldia eskainiko dute zenbait taldek: 12:00etan Iruñeko Taketan pilotalekuan, 12:30ean Hernaniko BihoTx elizan eta 13:00etan Madrilgo Madrilen Txalaparta taldeak Taskan. Pilotalekuan 10x10 metroko murala margotuko dute, Malmö Ilustration eta Jabiren eskutik, Baztandarren Biltzerra eta Arizkongo herriarekin elkarlanean. Sagardo saltzailak asto eta gurdian ibiliko dira, eskualdeko artisau azo-

ka eginen dute eta Berriozarko albokariak aditzeko aukera ere izanen da. 12:30ean tinkatzea eta zuku dastaketa eginen dute eta 13:45ean kirikoketa jotzea, Gallartako Harrigorria dantza taldea eta Baztango Kirikoketariekin. Baztango Xulubitariekin Jauziak ere izanen dira. 14:45ean bazkari herrikoia eginen dute. 18:00etan kalejira eta plazako aitaldia izanen dituzte, Oñatiko Oñatz dantza taldearekin eta 21:00etan parti apartarekin borobilduko dute besta, Andreolina Jolin, Intro Txalaparta, Julivert (Katalunia) eta Makulu Ken taldeekin. 01:00etan Tirri&Tery Jai-alai Guateke eta DJ-Reimy izanen dute.

Mutildantza bazterzaileekin akitzea eskatu dute

Elizondoko eliz atarian egiten denarekin akitzeko eskatu diote zenbait gizarte eragilek Baztango Mutildantzariak taldeari

TTIPI-TTAPA

Zenbait eragile elkartu ziren urriaren 24an Elizondoko eliz atarian, eskakizun zehatz bat egiteko: «hementxe berean, gu gauden toki honetan, Baztandarren Biltzarran eta Elizondoko bestetan egiten den dantza bazterzaileekin akitzea». Baztango Talde Feminista, Plazara Dantzara, Jo ala Jo, Baztandarren Biltzarra, Elizondoko herria eta Besta Batzordea eta Batzar Nagusiko zenbait kideren izenean, Baztango Mutildantzariak taldeari eskatu diote «bazterketak egiteari uzteko, bai hemen, bai bertze edozein eremutan. Bazterketarik gabeko Baztan nahi dugulako. Hamarkadak pasatu dira emakumeok, gure eskubideen defentsan Baztango Mutildantzetan parte hartzeko nahia

azaldu genuenetik. Bide luzea izan da eta denetariakoak izan dira emakumeak jasan ditugun erasoak, ahozkoak zein fisiokoak. Ez da xamurra izan. Emakume bezala bestaz, dantzaz, plazaz eta tradizioez nahi bezala gozatzeko eskubidea bermatu nahiak, antolatu eta borrokatzera eraman gaitu».

Hortaz, kolpeak jasan bezain laster zutitu direla eta aitzinerat segitu dutela azpimarratu nahi izan dute, «emakumeak izateagatik gure etorkizuna, gure askatasuna, eta gure bizitzak egunero jokoan daudelako. Borroka luze honen ondorioz Mutildantza dantzatzen den herriko plaza publiko guztietan dantza parekidea izatea bermatu dugu».

Herri honetan ere emakumeen kontrako erasoak oraindik ematen ari direla gogora-



Elizondoko elizatean egin zuten agerraldia urriaren 24an. UTZITAKO ARGAZKIA

tu dute. «Behin eta berriz salatu dugu matxismoaren alardea den eraso sexista kolektibo hau. Plazatik kanpo emateak ez du erran nahi onartu behar denik. Etxe barnean eta altxapeka ematen baitira emakumeen kontrako eraso gehienak, eta elizate honetan gertatzen dena eraso larri horien oinarrian dagoen patriarkatuaren adierazgarri argia dugu».

Hau dena salatuz mozio bat aurkeztu zuten Udaleko Osoko Bilkuran eta Batzar Nagusian. Osoko Bilkuran mozio hau ez zen aitzinerat atera Geroa Baik, Baztango Ezkerrak eta Baztan Auzolanean-ek

honen kontra egin zutelako. «Zenbait ekitaldi instituzionalan pankarten gibelean emakumeen indarkeria salatzen ikusten ditugunak, oraingo honetan bazterketa hau babestu dute», salatu dute.

Batzar Nagusiak berriz, salaketarekin bat egin du, «zenbait herriko alkate eta junterok eta EHBilduko hautetsiek erakutsi dutelako herritar guztiak ordezkatzen dituztela eta ez dutela bazterketarik onartuko. Bertze batzuk abstentziora jo dute, UPN barne. Horiei garbi erraten diegu, eraso salatzen ez duenak bidea libre uzten duela horrek bere horretan segi dezan».

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

ZUGARRAMURDI



Elbeten bildu ziren jubilotekako erabiltzaileak. UTZITAKOA

Jubiloteken topaketa egin dute lehenbizikoz

Aurten lehenbizikoa egin badute ere urtero egiteko asmoa adierazi dute

JOSEBIÑE ETA KORO

Zugarramurdi, Urdazubi, Erratzu, Arizkun eta Elizondoko jubilotekak topaketa bat egin zuten joan den urriaren 11n. Lehenbizikoa izan da, eta urtero egiteko asmoa dute.

Xaretakoek Amaiurren egin zuten lehenbiziko geldialdia, gaztelu inguruak ezagutzeko eta Borda hotolean pausa tiki bat egiteko. Handik Elbeterra joan ziren; han zituzten baztandarrak bazkaltzeko esperoan. Denetara hogeita hiru lagun elkartu ziren. Batzuek Arkupeak elkartetik elkar ezagutzen bazuten ere, bertze

batzuk ez ziren ezagutzen. Denen artean, giro polita sortu zen. Elbeteko posadan ederki bazkaldu zuten eta atsaldea kartetan eta bertze mahai-jokoetan pasa zuten.

Harremana elkarte

Aipatzekoa da jubiloteka horiek Harremanak izeneko elkarteak antolatzen dituela. Talde hori duela hiru urte sortu zen, Arkupeak elkartearen, La Caixaren eta Udalen laguntzaz. Gaur egun, 52 bazkide ditu eta hoietako 35 astero-astero elkartzen dira ludoteketetan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Karrikak moldatu dituzte

Zimiko berritan gaude herrian, Udalak udazkenean hainbat berrikuntza egin baititu. Nabarmenenak karrikakoak dira: Durruti enpresak plazatik Aitzondorainoko zola zaharberritu eta Azketako aparkalekuan brea bota eta pintatu du; Sasoik, berriz, Ehitoneko eta Sorginaldeko bideak zimentatu ditu.

Zugarramurdiko Udalak webgunea berritu du

TTIPI-TTAPA

Herritarrei edo zonaldea bisitatu nahi dutenei «Zugarramurdik eskaintzen dizkien zerbitzuak hurbiltzeko eta eskuragarri jartzeko» helburuz, Udalak webgunea berritu du. Bertzeak bertze, herriari buruzko oinarritzko informazioa,

interesguneak, berriak, agendako ekitaldiak, telefonoak eta argazki batzuk eta bideo bat bildu dituzte. Euskaraz edo gazteleraz kontsulta daiteke. Orain, eraginkortasuna baloratzeko, bisitarien webgunearen edukiak eta itxurari buruzko iritzia eman dezakete.

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

BERA (administrarritza)
31780 Bera

DANTXARINEA
31712 Urdax

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

LUZAIDE
31660 Luzaide

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 1^a izan ezik

Landibar

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

Euskal Herriko ligan hasi da helduen errugbi taldea

Frantziako Federazioetik atera eta Euskal Herriko ligara pasatu da Sarako Izarra

TTIPI-TTAPA

Errugbi elkarteko helduen taldeak Frantziako Federazioa utzi, eta Euskadiko Ligan hasi du aurtengo sasoi. Dagoeneko hiru partida jokatu ditu eta lehenbiziko biak behintzat erraz irabazi ditu. Hirugarrena urriaren 28an jokatzea zuen. Haurren errugbi eskolak Frantziako Federazioan segitzen badu ere, helduek hautu argia egin dute Euskal Herri mailako txapelketan aritzeko. Bigarren Mailan sartu da Sara, eta zazpi taldeko txapelketa bat abiatu dute urtarrila arteko lehen fasean.

Kontent egindako hautuarekin

Herriko taldeko bilkura batean errugbilari gazte batek proposatu zuen Euskal Herriko ligan sartzea. Orain desagertu den Euskal Kostaldea-Landak li-

gari baimena eskatu eta berehala baietza eman zuen. Ondotik behar izan duten bidea, ordea, ez da erraza izan eta Euskadiko Errugbi Federazioaren sustapena funtsezkoa izan omen da horretan. Patxi Jauregi Izarrako presidentearen hitzetan, «hainbat itzuliren ondotik, Sara Euskadiko Federazioko talde bilakatu da; ez Frantziak, ez Espainiak ere ez dute ezer egiten ahal». Izan ere, Euskadiko Federazioak bere txapelketa antolatzen du eta bere lizenziak banatzen ditu.

Bi jokalarik izan ezik, bertze guziek segitzen dute Izarrarekin Euskadiko Ligan. Are gehiago, jokalarik gehiago sartu dira Euskal Herri mailako izaera izateagatik. «sei-zazpi jokalarik etorri zaizkigu, bertzela etorriko ez zirenak», dio Jauregik.



XILABA.EUS

Herritarrak Xilaban

Taldeakako Xilaban ari diren herritarrek egin dute estreinaldia txapelketan: Karlos Aizpuruaren taldea (Ezkorbrutak) Sara eta Urruñan aritu zen eta Ellande Alfaroren Mattinsalto eta Julene Etxeberriren Kontrabanda taldeak Pausun; Kontrabandak azaroaren 3an egingen du bigarrena eta Mattinsaltok 17an.



CHRISTIAN PATERNE

Euskaraldiaren aldeko argazkia

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingen den Euskaraldia ekimenean parte hartzera animatuz, taldeko argazkia atera zuten hainbat herritarrek duela aste batzuk plazan. Oraindik Euskaraldian izena eman ez dutenek www.euskaraldia.eus atarian egin dezakete.



GANEX

Kermeza giro ederrean

OGEC eskola katolikoak antolatuta, kermeza iragan zen urriaren 7an. 140 bazkaltiar bildu ziren eta ez zuten animaziorik falta izan. Tote Mitxelena musikarekin eta Fabiana taldearen dantzak ikusiz, bildutakoek ongi pasatzeko aukera ederra izan zuten.

Laurent Lassaga suhiltzailea omendu dute

43 urte suhiltzaile nahianta egonik, bere kideek eta herriak omendu dute, Suhiltzaileen Batasunaren 60. urteburuan

PIERRE BASTRES

Aurten 65 urte beterik, suhiltzaile izatea uzterat behartua zen Laurent Lassaga. Landibez hargina baldin bada ere, gazetarik bertzeak laguntzeko nahikaria piztu zitzaion. Bere aitagarreba ere suhiltzaile nahianta zen, eta istripu batean zendu zen 1958an, bertze adiskide batekin. Horrek «oihartzun izigarria sortu zuen ene baita, eta bide beretik ibiltzea deliberatu nuen. Hasi nintzenean, ene andereari ez nion fitsik erran, ez errenkuratzeko gisan» aitortu du Laurentek. «Hainbertze urtetan laketu naiz bai. Gure egitekoak aldatu dira hastapenetik. Lehen suen hiltzea zen gure egiteko bakarra. Gero istripuetan laguntzea, eta azkenean anbulantzia egitea etorri dira», dio Olha aukozkoak.

Suhiltzaileen Batasunak eta Herriko Etxeak omenaldia egin diote Inharrian, Batasunaren 60. urteburua ospatuz. 100 lagun bildu ziren, eta Julien Ubiria kapitainaren mintzaldian, «Gure Axudant Nagusiaren maleziaz betetako irrinoak huts handia utziko du. Halaber, bere osotasuna, laguntzeko nahikeria eta baliagarritasunerako zentzia ez ditugu ahantziko. Pierrette bere anderea ere nahi nuke eskertu». Batasunaren Lehendakaria den Jean-Daniel Labordek gehitu duen bezala, «Ah, Laurent! Gauza ainitz partekatu ditiagu elgarrekin, hire azken zerbitzu eguna, bertzeak bertze. Nekez beteko diagu utzitako hutsa. Mintzatzea maite huen bai, eta betirako oroitu ko gaituk hire solasaldi batzuetaz, irriz! Oraindik astia



Jende anitz bildu zen omenaldian. PIERRE BASTRES



Laurent Lassaga, Pierrette emaztearekin. PIERRE BASTRES

duk hire familiaz eta zaletasun ainitzez gozatzeko, itsas-arrantza batez ere. Ainitzetan ikusi ahal dudanez, salatzen ahal diat hirekin itsas gainean, arrainak ez dituk desagertze-

kotan! Mila esker egindako lanagatik!».

Bertzalde, Departamentuak Senpere Sokorri Handiko Herria izendatu du, suhiltzaileen lana eta antolakuntza goretziz.

Euskaraldian izen-ematea girotzeko pintxo-potea egingen da azaroaren 9an

TTIPI-TTAPA

Apirilaz geroztik, Euskaraldia-
ren bueltan lanean ari dira Senperen. Geroztik hainbat ekimen egin dituzte herritarrek motibatuzko, bertzeak bertze, herriko eta auzoetako bestetan parte hartuz eta Euskaraldia-
ren inguruko azalpenak eman-
nez. Berriki komertzio eta ostatuei egin diete keinu, eta afitxak banatzen ibili dira horiek ere Euskaraldia ezagutu dezaten eta bide batez, eus-
kara erabil dezaten.

Ekimen horretaz gain, azaroan ekitaldi gehiago egingen

dituzte. Azaroaren 9an, erraterako, pintxo-potea alaitua egingen dute ostatuetan barna. Gisa honetara, herritarrek ahobizi edo belarriprest rolak hartuz, Euskaraldian izena eman dezaten animatzea nahi dute.

Azaroaren 23tik abenduen 3ra

Hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 16 urtetik goitiko herritarrek ahal den guztietan euskaraz egitea da Euskaraldiaren erronka. Eta egun horiek bertze edozein



Herriko bestetan Euskaraldia girotzeko atera zuten argazia. SENPEREKO EUSKARALDIA

egun bezalakoak izan ez dai-
tezen, hitzordu batzuk anto-
latuko dituztela adierazi dio
Amets Lahetjuzan lantaldeko
kideak TTIPI-TTAPARI. Hala, aza-
roaren 24an, herriko merka-

tuan, aperitifa animatua egingen
dute, 11:00etan. Abenduko
lehendabiziko asteburuan ere
zerbait antolatuzko asmoa
dutela aitzineratu du Lahet-
juzanek.



Ezekiel Martin, Joseba Otondo eta Mikel Zabaleta, aurkezpenean. UTZITAKOIA

Betiko abeltzaintza eta industrialala bereiztea eskatu dute

27 abeltzainek eta bederatzi alkatek sinatutako idatzia eraman diote Arartekoari, foru dekretuan aldaketak proposatuz

TTIPI-TTAPA

27 abeltzainek eta bederatzi alkatek sinatutako idatzi bat aurkeztu zitzaion urriaren 23an Arartekoari. Idatziak Nafarroako Gobernuak lantzen ari den abeltzaintza ustiategiaren inguruko foru dekretuaren inguruan sinatzaileek egiten duten balorazioa jasotzen du. Edukiaren aurkezpena hiru alkatek egin zuten: Mikel Zabaleta, Leitzako alkateak, Joseba Otondo, Baztango alkateak eta Ezekiel Martin, Atez bailarako alkateak.

Abeltzaintza eredu tradizional estentsiboak, tamaina ttiki edo ertainekoak eta dibertsifikatuak, gure lurraldeko ekonomia eta ingurumenaren kudeaketan eta gure herriak bizirik mantentzeko garrantzitsua da. Hortaz, eredu intentsibo industrialaren eta eredu tradizionalaren artean bereizketa argia egitea eskatu diote Administrazioari, eta azken honetarako bertze dekretu bat egitea, maneiuhonek dituen ezaugarri eta berezitasunetara eta eskualde bakoitzeko egoera eta antolamendura egokitu dena.

Izan ere, duela urte bat baino gehiago lantzen ari den Foru Dekretua tentuz jarraitu dute. Nafarroan abeltzaintza jarduera ekonomiko garrantzitsua izan da, eta oraindik ere bada, jendea landa eremuetan finkatzeko, Lurraldearen kudeaketarako eta biodibertsitatearen kontserbaziorako funtsezko elementua baita.

Bi errealitate

Azken urteetan, abere ustiategi batzuk aldaketa handiak izan dituzte, eta horrek errealitate berri bat ekarri du bai ekoizpenean, bai baldintza sanitarioetan, baita ekonomian zein ingurumenean ere.

Nafarroako abeltzaintza estentsiboko ustiategi gehienetan, abereek denbora gehiena libre ematen dute. Abeltzaintza intentsiboan, aldiz, ezin

ABELZAINZTA TRADIZIONALERAKO BERTZE DEKRETU BAT ESKATU DUTE

dira mugitu, ez dute askatasunik, ingurunetik eta gainetarako animalia eta pertsonengandik ahalik eta gehien isolatzea bilatzen da.

Horregatik, idatziaren sinatzaileei garrantzitsua iruditzen zaie baldintza higieniko sanitario, animalien ongizate eta antolamendu zooteknikoa arautzen dituen dekretu hau Nafarroan dauden abeltzaintza ekoizpen eredu egokitu-ta egitea, «izan ere, eredu bakoitzak dituen animalien ongizate eta higiene arazoak desberdinak dira, baita landa eremuan dituen ingurumen inpaktua eta inpaktu soziala ere».

Foru Dekretuaren proiektu hau «abere ekoizpen intentsibo eta industrial batean oinarrituz egin da soilik, honen garrantzi ekonomikoa bakarrik baloratuz». Horren ondorioz, «abeltzaintza tradizional estentsibo edota ekologikoak aldaketa garrantzitsua izanendu, bere garapena eta existentzia bera zailduko baita». Horrela, abeltzaintza eredu honek ordezkatzeko dituen baloreak, «guztiz baztertuak gelditzen dira, adibidez, produktuen kalitatea, animalien ongizatea, ekosistemaren oreka, hazien banatzea, suteen aurreko prebentzioa edo lurraldeak maila ekonomiko, sozial eta ingurumenean mantentzea eta herri bezala gure elikadura mota aukeratzeko eskubidea». Gainera, ez dute ez bidezkoa ez eraginkorra ikusten «abereak ukuiluan isolatzean oinarritzen diren bioseguritate neurriak soilik abeltzainen ardura izatea». Dekretu honetan proposatzen diren neurrien kostua ere ez lukete abeltzainek bakarrik beren gain hartu behar. «Administrazioak animalien osasuna hobetzeko beste neurri batzuk hartu beharko lituzke, eta hartu ditzake, animalia basatiei zein mota guztietako animaliei bideratuak egongo direnak (etxe animaliak, maskotak... barne)», diote idatzian.

Azaroaren 1ean irekiko dituzte Almandoz eta Belateko tunelak

TTIPI-TTAPA

Belateko eta Almandozko tunelak azaroaren 1ean zabalduko dira, sare transeuropearrean 500 metrotik goitiko tunel guztiek bete behar duten Europako segurtasun-araudira egokitzeko tunel barruko obrak bukatu ondotik.

Horrela azaldu zuen Belateko eta Almandozko Tunelaren Lanetarako Jarraipen-Batzordeak urriaren 17an egin zuen azken bilera eta gero. Tunelaren egoeraren txostena ere aurkeztu zuten, bi tuneletan burutu diren lanen xehetasunekin: likido toxikoak eta sukoiak ebakutzeko drainatze-sistema bana ezarri dira; bide-zoruaren drainatzea zabaldu eta birjartzea; bide-zoru berria fresatzea eta birjartzea (MBC) eta seinaleak; aireztatze, argizatze iraunkor eta gida-zirkuituetarako suaren kontrako kable-sare berria jartzea. Belateko tunelean, bestalde, 40 metro luzerako eta 3 metro zabalera bi bazterbideak bukatuta daude, hego tunel-ahotatik 360 eta 400 metrora hurrenez hurren. Bai Almandozko tunelean bai Belatekoan isuriak jasotzeko bi kutxatila eta sareta jarri dituzte.

Nafarroako Gobernuak 3,92 milioi euroko inbertsioa egin du egokitzeko lan horiek egiteko. Construcciones Mariezcurrena enpresak ekainaren 4an hasi zituen obrak.

Ayerdi lehendakariordeak azaldu zuenez, azaroaren 1ean kenduko dituzte ekainaren 4tik indarrean dauden trafikomurrizketak ere. N-121-A, N-121-B eta NA-1210 errepideetako (Belateko gaineko errepidea) ibilgailu-kontrolak egin dira tarte honetan, 512 guztira. 2.486 salaketa egin dira guztira, %78 radar bidez, N-121-A errepidean.



Beti Gazteko talde mistoa Nafarroako txapelkun izan zen iaz, Lesakan jokaturako azken jardunaldian. AITOR AROTZENA

Nafarroako sokatira txapelketa igandean abiatuko da Arbizun

Beti Gazte kategoria guztietan aterako da eta azken bi saioak Elizondan eta Lesakan izanen dira, hilaren 17 eta 24an

TTIPI-TTAPA

Nafarroako goma gaineko sokatira Txapelketa hasiko da azaroaren 3an, larunbatean, 17:00etan Arbizun.

Guztira lau jardunaldi jokatuko dira eta Lesakako Beti Gazte izanen da eskualdeko ordezkari bakarra. Hain zuzen, Lesakan jokatuko da sokatira

txapelketako azken saioa azaroaren 24an.

Gizonezkoak bi pisutan lehiatuko dira eta zortziko taldeak izanen dira. Emakumezkoak berriz, seiko taldetan pisu bakarrean lehiatuko dira. Talde mistoak ere pisu bakarrean lehiatuko dira eta zortziko taldeak izanen dira (lau gizon

eta lau emakume). Guztietan aterako du taldea Beti Gaztek.

Azaroaren 3an Arbizun, gizasemeen 640 kiloko lehen jardunaldia eta emakumeen 375 kiloko lehen jardunaldia jokatuko dira. Azaroaren 11n Aldatzen jokatuko da kategoria hauetako bigarren eta hondar jardunaldia, 12:30ean.

Azaroaren 17an Elizondan jokatuko da gizasemeen 600 kiloko lehen jardunaldia eta txapelketa mistoaren (550 kilo) lehen jardunaldia (17:00etan).

Azaroaren 24an, Lesakan jokatuko da kategoria hauetako bigarren eta hondar jardunaldia (17:00). Beti Gazte-ekin batera, Berriozar, Txantrea eta Antsoain (mistoan bi talde aterako ditu) ariko dira.

Donezteben eginen da herri-kirol eta crossfit desafioa abenduaren 22an

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Nafarroa eta Bizkaiko kirolarien artean herri-kirola eta crossfit nahasten dituen apustu bat lotu dute, abenduaren 22an jokatzeko. Hasieran lekua ez zuten lotua baina azkenean, Donezteben egitea erabaki dute. 18:00etan izanen dute hitzordua.

Alde batetik, Xabier Urrutia arraioztarra eta Iruñeko Alex Fernandez ariko dira eta, bertetik, Ousmane Dramé eta Oscar Perez bizkaitarrak. 3.000 euro izanen dituzte jokoan, 1.500 euro bikoite bakoitzak eta oraindik erabaki gabe dute non jokatuko duten.

Bikote bakoitzak egin behar duen lanari dagokionez, txanda librean, 80 kiloko herri bolari 80 altxaldi eman behar du dizkiote, 70 kiloko bi txingekin 20 metroko 20 plaza egin behar duzute, 50 kiloko bi 50 C&J pesa, bi kolpetan altxatu behar duzute 50 aldiz eta 15 epai egin behar duzute dizkiote kana-erdikoari arpanan.

Nafarroako lehen mailako aizkora eta arpana txapelketa mistoa Donezteben

TTIPI-TTAPA

Ohikoa denez, herri kirol jaialdi handia antolatu dute Doneztebeko ferietako arratsaldean. Azaroaren 16an, ortziraletan 18:00etan, Nafarroako aizkora txapelketa nagusia jokatuko da Ezkurra pilotalekuan. Sarrera 15 euro ordaindu behar du eta egunean bertan erosi ahal izanen da, 16:30etik aitzinera.

Iker Vicente, Jon Rekondo, Ruben Saralegi, Oier Kañameres eta Joxean Etxeberria ariko dira txapel handiaren bila. Lau kana-erdiko, lau 60 on-

tzako eta bi oinbiko azkarren moztan dituenak eramanen du.

Aipatzekoa da final hau baino lehen, Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketaren finalean aritzekoa dela Zigako Joxean Etxeberria azaroaren 4an Iurretan (Bizkaia). Lopez, Jauregi, Txapartegi, Mujika eta Mugertza III.a izanen ditu arerio.

Arpana txapelketa mistoa

Nafarroako arpana txapelketa mistoa ere Doneztebeko jaialdi berean erabakiko da.



Nafarroako txapelketa nagusiko finalean ariko den boskotea. ARTXIBIKO ARGAZKIA

Etzanda jarritako 45 ontzako enberrari hamar epai egin behar duzkiote. Aresoko Itxaso Onsalok Mikel Eugi izanen du bikote, txapelari

eusteko; Irune Biurrun eta Endika Garay, Alba Cobo eta Tasio Ugarte eta Esti Gastearena eta Unai Bertiz sunbil-darra ere ariko dira.



Joan den urtean, lehen edizioan, Mariñe omendu zuten. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Malerrekako II. Rallysprinta prest azaroaren 10erako

Larunbatean 11:00etan Doneztebe, Beintza-Labaien, Saldias eta Orokieta arteko errepeidea itxiko dute

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Joan den urteko arrakasta ikusirik, aurten ere Rallysprinta antolatu dute Donezteben. 08:00etatik 11:00etara autoen egiaztapenak egingen dituzte Santa Luzia plazan. 10:00etatik 12:00etara Amezitia karrikan kotxeak ikusteko aukera izanen da.

12:00etan zirkuitura joanen dira. Doneztebetik abiatuko dira. Saldias eta Beintza-Labaienen barrena, Orokietara eta buelta egingen dute. Eguerdian, berriz ere, Amezitia karrikan utziko dituzte autoak. Hala, goizean ikusteko tartetik hartu ez dutenek edo berriz ikusi nahi dituztenek berta-



Villares eta Zozaia Garesen. UTZITAKOA

ratzeko aukera izanen dute. 15:00etan zirkuitura itzuliko dira eta buelta egin ondotik, 18:00 aldera, eliz atarian bilduko dira, sariak banatu eta jasotzeko. Gauean afari irekia egingen dute eta nahi duten guztiek eman dezakete izena.

Villares eta Zozaia

Motor kontuekin segituz, Urdazubiko Mattin Villares gidaria eta Jon Zozaia Goizuetako kopilotoa, Renault Clio Maxi autoa gidatuz, garaile suertatu ziren urriaren 20an Garesko V. Rallysprintean. Nafarroako asfalto gaineko Rallyrako baliagarria zen probako lehen txandetan Joseba Beola nagusitu zen, baina azkenekoan ez zen atera.

Zortzi lagun leku bila binakako erremonete txapelketarako

TTIPI-TTAPA

Azaroan hasiko da binakako erremonete txapelketa eta bertan parte hartuko duten bikoitek osatzeko lau lekuren bila, zortzi erremonetelari lehian jarri ditu Oriamendi 2010 enpresak. Lehia horretan sartu diren lau aurrelariak Aritz Juanenea saldiastarra, Gorka Urtasun iruritarra, Ansa II.a eta Segurola dira; lau atzelariak, berriz, Aritz Zubiri goizuetarra, Agirrezabala, Larrañaga eta Azpiroz. Hauen arteko bi aurrelari eta bi atzelari onenak txapelketan sartuko dituzte. Lehen jardunaldiak joan den ostegunean eta larunbatean egin zituzten. Zubirik Azpirozekin jokatu zuen atzelari izateko txartel bat, Segurola eta Ansa aurrean txandakatu. Aste honetan, Juanenea eta Urtasunen artean jokatu dute txapelketan aritzeko aurrelariaren azken txartela. Agirrezabala eta Larrañaga txandatu dituzte gibelego koadroetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Igarzabal eta Larque Baionako podioan

Uztaritze eta Baiona arteko Errobiko lasterketa burutu zen urriaren 14an. 455 korrikalariren artean 13 km.ko lasterketa osatzen bizkorrena Javi Urbano irundarra izan zen (44'58"). Ondotik, Lesakako Beti Gazteko Bixente Igarzabal (47'07") eta Berako Manttaleko Gwendal Larque (47'28") sartu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Juanenea txapeldun orde promozioan

Urriaren 12an jokatu zen Lekunberriko pilotalekuan Nafarroako Promozio txapelketako finala. Agoizko Barricart eta Olanok 35-31 irabazi zieten Beñat eta Saldiasko Aritz Juaneneari. Beñatek min hartua dagoen Eloy Garcia doneztebarra ordezkatu zuen azken partidari.

AGENDA

AZAROAK 1 - 15

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

ANTZERKIAK

BERA

Zaharrak berri

Lixoia ostatuan, azaroaren 9an, 22:30ean.

Irripar Txou

Xuga ostatuan, azaroaren 25ean, 22:30ean.

Gudua

Errekalde ostatuan, azaroaren 30ean, 22:30ean.

BAIONA

'Euskal oroitzapena, Itzaletik argira'

Antzokian, azaroaren 10ean, 18:00etan.

IKASTAROAK

ELIZONDO

Menpekotasun egoeran dauden pertsonak laguntzeko

Lanbide Eskolan, azaroaren 30era arte, 15:00etatik 20:20era.

Bailableak

Plazan, azaroaren 11n, 12:45ean.

Haur, nerabe eta gazteekin esku-hartzea

Arizkunenean, azaroaren 21ean, 17:00etatik 19:00etara.

Estresa eta antsietateari aitzin egiteko tailerra

Osasun etxean, azaroaren 21ean eta 28an, 10:00etan.

ERRATZU

Makrobiotika ikastaroa

Kultur Elkartean, azaroaren 3an (20:00) eta 4an (13:30).

DONEZTEBE

Haur, nerabe eta gazteekin esku-hartzea

Mendaur ikastetxean, azaroaren 22an, 17:00etatik 19:00etara.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

LEITZA Bertako produktuen azoka

Leitza eta Aresoko ekozileen azoka. Azaroaren 11n.

ETXALAR

Sukaldaritza ikastaroa

Larraburuan, azaroaren 9an hasita, ortziralero, 18:00etatik 20:00etara.

LESAKA

Haur, nerabe eta gazteekin esku-hartzea

Erabilera Anitzeko Aretoan, azaroaren 15ean, 17:00etan.

BERTSOAK

GARAZI

Otsoaren 7 umeak eta kontrabanda

Luisenean, azaroaren 3an, 19:00etan.

HENDAIA

Sasi bertsolariak eta Tirrit

Bakarxokon, azaroaren 3an, iluntzean.

BAIGORRI

Tirrit eta Dilindan

Bixentainian, azaroaren 9an, iluntzean.

HENDAIA

Kosta ala kosta eta Kantiniersak

Akelarren, azaroaren 16an, iluntzean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

De mar a mar

Arizkunenean, azaroaren 4an, 19:00etan.

Maraya Zydeco

Arizkunenean, azaroaren 11n, 19:00etan.

ARANTZA

Txamukos mariatxiak

Afaria eta ondotik kontzertua. Burlada jatetxean, azaroaren 16an, 21:00etan.

SARA

Ikastolako kantaldia

Euskal kantak. jatekoa eta edatekoa izanen da. Lur Berri gelan, azaroaren 17an, 17:00etan.

ETXALAR

Carlos Nuñezen kontzertua

Elizan, azaroaren 25ean, 20:00etan.

MENDI-IRTEERAK

BAZTAN

Baztangoizako kaperak

Azaroaren 4an, 08:00etan.

Abartanera

Azaroaren 11n, 07:30ean abiatuta.

Auritzera

Azaroaren 18an, 06:00etan abiatuta.

OSPAKIZUNAK

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean.

LESAKA

Bertso gaztain-jatea

Basurden, azaroaren 3an, 20:00etan.

BAZTAN-BIDASOA

Ehiza jardunaldiak

Azaroaren 30era bitarte.

ARIZKUN

Kirikoketa Besta

Azaroaren 3an.

BESTAK

AURTIZ

Sanmartinak

Azaroaren 8tik 11ra.

AZOKAK

SARA

Ekizleen azoka

Plazan, ortziralero, 16:30etik 20:30era.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

ETXALAR Carlos Nuñez

Carlos Nuñez eta taldearen kontzertua.
Elizan, azaroaren 25ean, 20:00etan.

SENPERE

Artisauen azoka

Plazan, astearte goizero,
08:00etan.

Ekoizleen azoka

Plazan, ortziraleroko, 16:30etik
aitzinerara.

LEITZA

Bertako produktuen azoka

Azaroaren 11n.

DONEZTEBE

Udazkeneko feriak

Azaroaren 16an. Xehetasunak:
29. orrialdetik aitzinerara.

LESAKA

Udazkeneko feriak

Azaroaren 21ean eta 22an.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Fernando Manterola argazki erakusketa

Azaroaren 1etik 28ra,
asteartetik ortziralerara

arratsaldean eta larunbat zein
jaiegunetan goiz eta arratsaldean.

ARANO

Emakume baserriarren erakusketa

Maisuenean, igandetan, San
Martin Egunera arte, 10:30etik
13:00etara.

LEHIAKETAK

ELIZONDO

Aire zabaleko pintura lehiaketa

Jose Mari Apeztexearen omenez.
Gaia: Ziga, Aniz eta Berroeta.
Azaroaren 4an, Kasinon,
08:30ean.

FILMAK

IRURITA

Petit paysan

Jatorrizko bertsoia.
Damaso Zabalza Gizarte
Bilgunean, azaroaren 18an,
19:00etan.

Nire aukera

«Gaztetxoei herrigintzan lanean segitzeko gogo transmititu nahi nieke»

OHIANA CALPARSORO ARANOKO BERRIEMAILEA

Argazkilaritza, musika, eskulangintza... «sorkuntza eta artea oinarri duen guztia» du gustuko Ohiana Calparsorok: «bost anai-arrebetatik gazteena naiz eta haiek oso sortzaileak dira, agian hortik datorkit. Haiei begira egoteak gauza asko ezagutzeko bide ematen dit eta...». Afizioa ofizio eginik, «Alaiondo estudioan lanean» pasatzen ditu orduak eta garatzen dituzten proiektuek



UTZITAKO ARGAZKIA

egiten dute zoriontsu. Jendartean egotea du maite, hortaz, herria bizi mantentzeko bere esku dagoena egiten du. Uda hasieran «herrian egiten diren ekintzak zaindu eta mantentzeko helburuz eta aisialdirako aukerak zabaltzeko» sortu berri duten Jalki elkarteko kidea da. Ekainean sortu zuten elkartea, «baina kultur egitaraua urrian jarri dugu martxan». Orain artean mugimendu handirik izan ez bada ere, aurrerantzean

«SANMARTINAK DATOZ ETA ONDDOEN BUELTAN EKITALDIAK ANTOLATUKO DITUGU»


jarduerek «arrakasta handiagoa» izanzen dutela uste dute. Etorkizunerako «auzolana sustatzea» dute erronka nagusia: «gogor lan egin beharko dugu, baina herriak dituen baliabideak ikusita bidea hori dela uste dugu». Horren urruti joan gabe, momentu honetan beste proiektu batzuekin ari dira: «kalitateko interneta merkeago ekartzeko herritarren babesa lortu nahian ari gara». Urria indartsu hasi dute: Landa Eremuko Emakumeen Egunaren harira, erakusketa; Euskaraldiko izen-ematea sustatzeko jarduerak... antolatzen ibili dira. Azarora begira, berriz, «sanmartinak datoz eta onddoei buruzko egitaraua prestatzen gabiltza». Herrian eta herriarendako egiten diren ekintzetan parte hartzeaz gain, TTIPI-TTAPAN horren berri ematen du azken aldian aranoar gazteak: «lan-erritmoak markatzeko eta idazten trebatzeko ariketa» da berarendako. «Pozik» egiten du gainera: «herrian zerbait badela eta bizirik dagoela sentitzen dut». Amets pertsonalak «pila bat» izanagatik, Aranora begira, «kultur elkarteko kideok herriarekiko dugun ilusio eta gogo» herriko gaztetxoei helarazi nahi lieke; «transmisioaren bidez» hasitako bideak segida izatea eta «herrigintzan jarraitzea lortu nahi nuke».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



HENDAIA. Kanpin batean dagoen mobil-home salgai. 36 m² eta oso egoera onean. Bi gela, egongela sukalde, komuna alde batetik eta dutxa eta labar bestetik. Egurrezko portxea aparte. Kafetzeria, labardora, telebista, sukaldeko tresneria guztiarekin. ☎ 667 30 88 26 / 667 01 89 89.

ETXALAR. Borda bat salgai, bere lurrarekin. ☎ 661 12 15 40.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenengo solairuan, erdigunean kokatua, Alzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukalde estreinatua gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎ 608 77 79 26.

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Granadako kosta tropikalean, partikular batek lagun bat edo birentzako apart-hotela errentan emateko du, neguan. Lehen lerroan, bista zoragarriak terrazatik, aire girotuarekin eta hagitz ongi hornitua. Abenduaren 15etik martxoaren 31ra errentan emateko. ☎ 658 94 37 02.

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Bikote batek pisua edo duplexa errentan hartuko luke. Guttienez bi logela, mobleztatua, argitsua, berritua eta kanpoaldera begira ahal bada. Biak lanean eta kontratuakin. ☎ 666 61 85 75.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttapi-Ttapa ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegaberen erantzukizunik

KONPARTITZEKO

BERA. Pisua konpartitzeko norbaiten bila. ☎ 678 07 66 65.

LANA

ESKAINTZAK

LESAKA. Kafetegi batean egun erdiz lan egiteko lagun bat behar da. Bidali curriculuma: m.evaogi@gmail.com.

MALERREKA edo BORTZIRIAK. Fruta-denda batean lan egiteko jendea behar da. kifrut@gmail.com.

BERA. Churrut Hotelean (Lenkonea jatetxea) egun osoan aritzeko zerbitzaria behar dute. Deitu edo bidali curriculuma. ☎ 948 62 55 40 edo info@hotelchurrut.com.

ESKARIAK

Emakumezko bat lan bila adineko pertsonak zaintzeko –interna moduan edo egunez– edota garbiketari lanetan

aritzeko. Esperientzia adineko pertsonen zainketan, erreferentziarik, garbiketari lanetan edo etxeko lanetan orokorrean. ☎ 693 69 49 49.

Emakumezko bat lan bila. Adineko pertsonak zaintzen interna edo egunezko langile bezala, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. ☎ 666 81 21 13.

Emakumezko bat lan bila. Adineko pertsonak zaintzen interna edo egunezko langile bezala, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. baita sukaldaritza arloan aritzeko ere. Erabateko prestasuna. ☎ 666 81 10 56.

40 urteko emakumezkoa lan bila. Pertsona adinduak interna moduan edo orduka zaintzeko prest. Esperientziaduna adinekoak zaintzen interna bezala. ☎ 685 66 91 48.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,29
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiak

- (15 egun inguruokak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 250,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/9,40
- 8-10 kilokoak: 7,20/7,90

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 35 €

Zerri gizona 1,100 €

Zerramak 0,460€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (urriaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)

Neska bat lan bila: haurrak zaintzeko, adinduak zaintzeko konpainia egiten eta establezimenduak edota etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna haurren zaintzan, adinekoak zaintzen konpainia moduan baita garbiketari lanetan ere. ☎ 644 85 81 34.

Adineko pertsonak zaintzen zazpi urteko esperientzia duen emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen, haurrak zaintzen edota ostalaritzan aritzeko prest. Erabateko prestutasuna. ☎ 667 31 87 19.

Gizonezko arduratsua lan bila. Eraikuntzan eta salmantan lan egindakoa. Eraikuntzan, garbiketari, lorezaintzan edota beste arloetan aritzeko prest. Ikasteko prest. Erabateko prestutasuna. ☎ 644 46 26 50.

BERA. Emakumezko bat lan bila: etxeko lana egiteko, haurrak edo adinekoak zaintzeko... prest. ☎ 602 82 23 74.

Gizonezko bat lan bila eraikuntzan, abeltzaintzan edota komertzioetan lan egiteko prest. Ingeniaritza arloan ezagutzak, talde lanean aritzeko gaitasuna eta oso arduratsua. Erabateko prestutasuna. ☎ 644 84 92 06.

Gizonezko bat eskualdean lan bila. Adineko pertsonak astegunetan zaintzeko, garbiketari lanetan aritzeko eta ostalaritzan aritzeko prest. Arduratsua eta pertsonen arteko komunikaziorako abileziekin. Erabateko prestutasuna. ☎ 631 54 44 81.

Emakumea lan bila: adinekoak zaintzen interna edo externa bezala aritzeko prest, baita haurrak zaintzen, garbiketari, sukaldaritzan edota lorezaintzan aritzeko ere. ☎ 644 37 30 08.

Etxalarko neska bat lan bila. Haurrak zaintzen esperientziarekin, dendaria, fabriketan eta ikasteko prest. ☎ 687 22 23 20.

Berako emakumea lanean aritzeko prest: garbiketari, etxeko lanetan, dendari, adinekoak edota haurrak zaintzen... Erabateko prestutasuna. ☎ 667 95 84 88.

ZERBITZUAK

ILE-APAINDEGIAK

BORTZIRIAK. Etxe etxeko ile-apaindegi zerbitzua eskaintzen da. ☎ 626 25 06 30.

ANIMALIAK

SALGAI

SUNBILLA. Ahuntzak salgai. Jendearekin hagitz ohituak. ☎ 629 540549.

ARESO. Behi mestizoa salgai. ☎ 634 65 55 71.



LESAKA. Setter arrazako zakurkumeak salgai. ☎ 677 59 48 92.

OPARITZEKO

LEITZA. Salmoari arrazako borts txakurkume oparitzeko. ☎ 644 96 63 88.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

BERA. Kotxeko giltzak galdu dira, Ford etxeko mandoa. Herriko Etxeko

Plazan, Agerran edo bidean segur aski. Norbaitek aurkitu baditu harremanetan jartzea eskertuko genuke. ☎ 636 42 60 94.

MOTORRAK

SALGAI



Audi A3 S line 140 CV salgai. Egoe-ra oanean. ☎ 679 61 88 68.

KONTATU KONTUAK



TTIPI-TTAPA

Larungo proiektuaren aurkako kanpaldia. Larungo kaskoan egin nahi duten proiektuaren kontra, kanpaldia egin zuten urriaren 13an eta 14an tontorrean, Aman Komunak sareak deituta. Bi egunehz hitzaldiak ere antolatu zituzten eta ehun lagun inguru bildu ziren solasaldi horien bueltan.

KATEA BIKE 2. eskuko bizikletak

900€

500€

1800€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

KM 0

DUSTER COMFORT dci 110 CV 4X4
2018 urtekoa

KM 0

CAPTUR S-EDITION TCE 120 CV EDC
2018 urtekoa Automatikoa

KM 0

MEGANE ZEN TCE 130 CV
2018 urtekoa

www.talleressantesteban.com

Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es



Trikidantz Nafarroa Oinez. Bizi lelopean, urriaren 21ean Altsasun egin zen aurtengo Nafarroa Oinez besta eta hainbat izan ziren eskualdetik joan zirenak. Batzuk taula gainean eta bertzeak behean. Horien artean, Trikidantz taldeak ez zion hitzorduari hutsik egin eta bertze urte batez kontzertua eskaini zuen. Argazkian ageri den bezala, jendetza bildu zen bere musikaren erritmoan dantzatzeko.

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

EGUTEGIAK

- SAKELEKOAK
- PARETAKOAK
- MAHAI-GAINEKOAK
- FORMATU BEREZIAK
- Pertsonalatuak
- Hainbat paper mota

(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berrikerik eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppez 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitetz TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

URTEURRENA

**Pakita
LUSARRETA ITURRI**

Leitzan, 2015eko azaroaren 13an
III. urteurrena

Gezurre dirudi joan zarela,
oroitzapen onak utzi dizkiguzu
eta gauze ederrak erakutsi.
Beti izanen zaitugu gure ondoan,
adiorik ez, gero arte baizik.



ETXEKOAK

URTEURRENA

**Jose Angel
ALZUGUREN PERURENA**
Kotto

Beran, 1966/03/03 - Sorian, 2005/10/31
XIII. urteurrena

Izan zirelako gara
Garelako izango dira.
Guretzat eta Euskal Herriarentzat
betiko argia.



ETXEKOAK

OROIGARRIA

**Pilar
IRAZOKI ELGORRIAGA**
(Manuel Taberna Endararen alarguna)



Alkaiagan, 2018ko urriaren 20an, 92 urte zituela

Udazken-haizea joka
Zeruan bi lertsun tropa
Alde egiteko tenorea da
prestatu nere arropa

Aio, ama!
Aio, amatxi!

URTEURRENA

**Migueltxo
MAKUSO URROZ**

Aurtitzen, 2017ko urriaren 31n
I. urteurrena

Beti umore ona zenuen denekin
Gauza denen gainetik aitzinerat ekin
Bizitzari helduaz gogo guziekin
Indar hau utzi duzu betiko gurekin
Maite izan zaitugun familiarekin.

GOGOAN ZAITUGU

ZURE FAMILIA



OROIGARRIA

Graciosa AZCARATE MAYORA

Ama, amatxi eta birramatxi

Elizondon, 2018ko urriaren 19an, 93 urte zituela

Emakume zoragarria izandakua.
Bere kemena, indarra eta maitasuna
azkeneko momenturaino emandakua.
Zilarrezko gorputza izandakua
baina bihotza urrezkua.

Mila esker amatxi urte hauetan zure ondoan pasatu ditugun
momentuengatik. Joan egin zara, baina sekulan ez gure buruetatik
eta bihotzetatik. **MAITE ZAITUGU, AMATXI!**



ETXEKOAK


URTEURRENA

Joakintxo ZIA OTEIZA

1968/10/01-2016/11/04
II. urteurrena

Hostoak arboletatik erortzen diren bezala
udazkeneko egun batean joan zinen.
Geroztik gure bihotzak egunero
zure oroitzapenekin betetzen dira.
Maitasuna ez da inoiz itzaltzen
eta itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.
Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.

ZURE FAMILIA



IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO **ETXEETAKO ZERBITZUAK** ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

EZKONTZAK

- **Richard Noël** eta **Charlène Le Regent**, Sarakoa, urriaren 6an Saran.

SORTZEAK

- **Izar Cayrey Barandiaran**, Sarakoa, urriaren 8an.
- **Danel Maritxalar Muñoa**, Lesakakoa, urriaren 8an.
- **Olatz Ibarra Lanz**, Sunbillakoa, urriaren 17an.
- **Jare Grajirena Beunza**, Legasakoa, irailaren 17an.
- **Haizeder Mariezkurrena Mariezkurrena**, Leitzakoa, urriaren 22an.

HERIOTZAK

- **Geneviève Massonde**, Sarakoa, irailaren 26an, 79 urte.
- **Maria Nieves Matxikote Perugorria**, Igantzikoa, urriaren 10ean, 90 urte zituela.
- **Naiara Juantorena Eskudero**, Goizuetakoa, urriaren 10ean, 35 urte zituela.
- **Esteban Sobrino Petite**, Elizondokoa, urriaren 11n, 86 urte zituela.
- **Elvira Nemours Ezpanda**, Elizondokoa, urriaren 13an, 81 urte zituela.
- **Micaela Bidart Mendiburu**, Azpilkuetakoa, urriaren 13an, 82 urte zituela.
- **Martina Bergara Almandoz**, Arantzakoa, urriaren 16an, 88 urte zituela.
- **Manuel Taberna Endara**, Berakoa, urriaren 16an, 101 urte zituela.
- **Martin Arizaleta Azkarraga**, Etxalarkoa, urriaren 16an, 84 urte zituela.
- **Mamen Lizartza Saralegi**, Leitzakoa, urriaren 17an, 52 urte zituela.
- **Gabriel Goñi Mongaburu**, Elizondokoa, urriaren 18an, 93 urte zituela.
- **Graciosa Azkarate Maiora**, Elizondokoa, urriaren 20an, 93 urte zituela.
- **Pilar Irazoki Elgorriaga**, Alkaiaakoa, urriaren 20an, 92 urte zituela.
- **Elvira Ostiz Iribarren**, Doneztebekoa, urriaren 22an, 90 urte zituela.
- **Antonio Isuskiza Lizarazu**, Amaiurkoa, urriaren 23an, 95 urte zituela.
- **Jose Maria Arrijuria Etxenike**, Iruritaakoa, urriaren 23an, 69 urte.
- **Bittoriano Arzuaga Saldias**, Urrozkoa, urriaren 23an, 93 urte zituela.

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Benan, Bortzirietan eta Malerrekan

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDAN
AQUÍ, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

URTEBETETZEAK



Lesakako **Ainhoa** bortz urte beteko ditu azaroaren 15ean. Zorionak etxeko ttikienerari! Eskatu, eskatu opariak! Aurpegi horrekin nork erranen dizu ezetz? Musu haundi bat eta ongi pasa eguna!



Azaroaren 7an Goizuetako **Ireber Indakoetxea Mendizurik** 7 urte beteko ditu. Zorionak maitia! Ilargi, aita, ama, Goizuetako amona eta Usurbil eta Hernaniko familiaren partetik.



Sunbillako **Jone Bertiz Ariztegi** azaroaren 1ean 5 urte beteko ditu! Muxu handi eta potolo bat Sunbillako eta Etxalarko familiaren partetik!



Arantzako **Aimar Baleztina Goñik** urte bat bete du urriaren 29an. Zorionak familia guziaren partetik.



Leitzako **Julene Rodriguez Urrutiak** 6 urte beteko ditu azaroaren 4an. Zorionak gure etxeko printzesari, asko maite zaitugu.

Bagoaz, baguzi, bagazi
ttipi-ttapa haziz!

ZUK		ZURI
Zuk TTIPI-TTAPARI 50€ ematen badizkiozu	MECNAk zuri 40€ bueltatuko dizkizu	
<p>...eta zure ekarpenekin zer eginen du Ttipi-Ttapa Fundazioak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • TTIPI-TTAPA aldizkaria argitaratu eta zure etxera eraman • ERRAN.EUS eta sare sozialen bitartez egunero informazioa zabaldu • Euskara eta euskal kultura sustatu 	<p>40 euro berreskuratuko dituzu 2019ko errenta aitortpenean</p> <p>ONURA FISKALA PARTIKULARRENTZAT</p> <p>Egindako donazioaren %80a itzuliko zaizu errenta aitortpenean lehen 150 €tan, eta %40a kopuru haundiagoetan.</p>	
eta guztia EUSKARATIK ETA EUSKARAZ		
LAGUNDU		AURREZTU
948 635 458 • bagoaz@ttipi.eu		

PLAZAN BAZAN



ZABOR-BILTZAILEEN GREBA

Egilea: Garbine Ubeda (Aiturri)



Hau da kiratsal
 Ez al dira
 nazkagarriak irudiok?
 Ba, nazkagarriak
 izateaz gainera,
 ezberdinak ere badira.
 12 alde daude
 bien artean.
 Ikusten al dituzu?

- 1.....
- 2.....
- 3.....
- 4.....
- 5.....
- 6.....
- 7.....
- 8.....
- 9.....
- 10.....
- 11.....
- 12.....

BAIETZ HARRAPATU!

Karramarro bihurriak zimikoa eginen dio emakumeari, ipurmasailetan. Zein bide hartuko du horretarako?



EZETZ ASMA!

Zure ustez, zein da isatsarekin jaten duen animalia?



INTERNETEN ERE BAI!



<http://plazanbazan.eus/>




Kontsultatu soluzioak:
www.plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

Utziko al zenidake zure artaldea margotzen?

Sentitzen dut andrea, baina niri zuri-zuriak gustatzen zaizkit ardiak

AI ENE!



Ttipi Txartela

arekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

720

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

- Baztan Abentura Park - 2 tiket**
Julian Reteigi Petrikorena | ERATSUN
- Astizko lezeak - 2 sarrera**
Raimundo Sarratea Sarratea | LEGASA
- Donostiako aquariuma - 2 sarrera**
M^a Jesus Salaberri Apezetxea | ORONOZ-MUGAIRI
- Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**
Maite Zelaieta Oskoz | IGANTZI
- Buatxabal - Kamiseta bat**
Aintzane Arretxea Mariezkurrena | LEITZA
- Martiko - Lote bat**
Mariano Eseberri Azkoiti | ELIZONDO
- Elkar - Liburu bat**
M^a Eugenia Irisarri Uhalde | ELBETE
- Elkar - Liburu bat**
Endika Lekaroz Ordoki | IRUÑEA
- Elkar - Liburu bat**
Gurutze Graziarena Elizondo | BERA
- Elkar - Liburu bat**
Nati Baleztena Santesteban | DONEZTEBE

2 liburu



Sumendiak + Elmer berriro ere
www.ttartalo.eus

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

ARKUPE

www.arkupezogotegia.com



Lote bat

MUSIKA



Guda Dantza
Argibideak

baga-biga
MUSIKA IDEIAK
www.baga-biga.eus

LA GUNTZAI LEAK



www.katxiporreta.eus



www.onddotapunto.com